

hh
hik hasi


120

5 EURO • 2007KO UZTAILA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA



**VIII. Hik Hasi
Udako Topaketak**

PiRRix eta PORRox



ipuin berriak

Bi liburu berri hauek familiaren aniztasunari buruzko sailaren azkenak dira. FAMILIAK MILAKOLORE saila, sei liburuez gainera, karta-jokoa eta bi CD ROM-ek osatzen dute (udazkenean aurkeztuko dira CD-ROMak).

FAMILIAK milakolore



aurkibidea

5 editoriala

6 Euskal kultura eta identitatea XXI. mendean

8 Ahozotasuna

10 Bigarren hizkuntzaren jabekuntza

12 Ahotsaren erabilpen egokia

14 Harremana afektiboak

16 Harremanak gelan

18 Adimen emozionala - umorea

20 Coaching

22 Psikomotritzitatea eta jolasa 0-3 zikloan

24 Publisher

26 Power Point

28 Photoshop

30 Irudien manipulazioa

34 Blogak irakaskuntzan

36 Wikiak eta webquestak

38 Bideoa

40 Ordenagailua musika gelan

42 Musikaterapia

44 Dantzaterapia

46 Idazketaren didaktika baterantz

48 Nola irakatsi ongi idazten

50 Antzerkia

52 Haurrentzako masajea

54 Birziklatuz sortu

56 Autismoa

58 Reggio Emiliako haur eskolak

60 Arratsaldeetako saioak

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Gofii, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: VIII. Udako Topaketak (TRAM•Grafik). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2007-VI-20). Kopurua: 5.000 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Gipuzkoako Foru Aldundia
Euskararen Normalkuntzarako
Zuzendaritza Nagusia



Donostiako
Udala

Harpidetza orria



hik hasi
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaitetz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararaten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

uztaila

Denon parte-hartzearekin eta elkarlanarekin ziur guztiok bukatuko dugula gustura



Ilusio eta gogo berrituarekin ekiten diogu urtero ikastaroak antolatzeari, bai baitakigu asko eta asko zaretela horren esperoan zaudetenak eta guk adinako ilusio eta gogo jartzen duzuela zuek ere zeuon etengabeko prestakuntza hobetzeko.

Konturatzeko urtea pasa da eta hemen gaude, VIII. Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoen atarian. Ilusio eta gogo berrituarekin ekiten diogu urtero ikastaroak antolatzeari, bai baitakigu asko eta asko zaretela horren esperoan zaudetenak eta guk adinako ilusio eta gogo jartzen duzuela zuek ere zeuon etengabeko prestakuntza hobetzeko.

Jakin badakigu prestakuntza horrek kolore askotarikoa izan behar duela, denon beharrak eta interesak ere hala baitira. Urteek aurrera egin ahala, gero eta nabarmenagoa da Informazio eta Teknologia Berrien erabilpena gehitzen ari dela eskoletan. Aurten horri lotutako sekula baino ikastaro gehiago eskaini ditugu eta denek izan dute erantzun ona. IKTak arkatza eta arbela bezain garrantzitsuak bihurtzen ari diren seinale.

Hizkuntza informatikoarekin batera, gure betiko komunikazio hizkuntza ere hor daukagu. Horri ere garrantzi be-

rezia eman ohi diogu topaketetan, beti baitago zer landua, zer eztabaidatua eta zer ikasia. Horren adibide dira aurten eskainitako ikastaroak: ahokotasuna lantzeko bata, bigarren hizkuntzaren jabeak eta ikas-irakaskuntzaz eztabaidatzeko bestea, idazketaren didaktikari lotua hirugarrena eta ongi idazten irakasteko pautei bideratua laugarrena.

Espresioarekin zerikusia duten ikastaro sorta ere oparota da, urtero legez: musika, dantza, antzerkia, masajak, eskulanak, psikomotrizitatea... Uda garai honetan eta ikasturteko lan astunak arintzeko edo, asko estimatzen dira horrelako saio mugituak eta atseginak. Bidez batez, heziketarako garrantzitsuak diren alderdiak jorratzeko aukera emten dute.

Bada garrantzitsua iruditzen zaigun beste alderdi bat ere: sormena. Hainbat eta hainbat ikastetxetako hezkuntza proiektutan agertzen da haur eta gazte

sortzaileak heztea dela xedeetako bat. Horregatik iruditu zaigu interesgarria heziketa sortzaileari buruzko ikastaroa eskaintzea. Baina ez da aurrera atera, ez aurten eta ez iaz. Kezkagarria ote? Arduratzekoa? Normala? Gu behintzat ez gaitu axolagabe utzi.

Beste apustu bat Reggio Emiliako ikastaroa izan da aurten. 2005ean bertako haur eskolen esperientzia ezagutzeko jardunaldiak antolatu genituen. 2006ko urrian bidaia pedagogikoa antolatu genuen hara. Han ikasitakoari jarraipena ematera dator ikastaro hau. Ez da Reggio Emiliako pedagogoekin izango dugun lehen kontaktua, hasitako harreman eta elkarlanaren jarraipena baizik.

Topaketak beraiek bezalaxe. Zortzigarren edizioa izango da aurtengoa. Zortzigarren aldi honetan ere ziur gaude denon parte-hartzearekin eta elkarlanarekin gustura bukatuko dugula guztiok.

Euskal kultura

Euskal kultura eta identitatea XXI. mendean



Eugenio ARRAIZA

EUSKOKULTUR FUNDAZIOKO ZUZENDARIA

Zein da ikastaroaren oinarria?

Ikastaroaren abiapuntutzat hartzen dugu gaurko globalizazio prozesuan murgilduta dagoen gizarte egoera: giza balio tradizionalen krisia, eguneroko bizitzaren estresa, biharamuneko kezka ekologikoa... Eta Euskal Herriari dagokionez: gure kulturaren zehaztasun eza, identitatearen norabide eza eta autogobernuaren kinka larria. Ez da diagnostiko ezkorra, baina bai arretaz aztertzekoa.

Zer da, bada, zuentzat kultura? Zein da kulturaren funtzioa?

Eguneroko prentsan agertzen zaigun kultura kontzeptua artelanaren ikuskizuna eta literatura produktuen metaketa izan ohi da; guretzat, aldiz,

benetako kultura, gizakiarentzat funtsezkoa, ez da bizitzaren hornidura edo apendizera, gure nortasunaren egitura-tzailea baizik. Eguneroko bizitza ekonomiaz, ohitura arruntez eta elkarrekin harremanez dago osatuta, eta beraz, elementu horiek "gure" kulturaren zutabe nagusiak dira.

Zer alde dago eusko kulturaren eta euskal kulturaren artean?

"Eusko" hartzen dugu Euskal Herriko gisa, lokatiboa: Euskal Herrian dagoena. "Euskal" adjektiboak kalitatea adierazten du, berez. Izatez, argi dago hemen hiru kultura mota ditugula: espainiarra, frantziarra eta, estatu bateko egituraren babesik gabe, euskal kultura. Alegia, iraganeko tradizioetik gaur e-

gungo bizitzara egokitu behar dugun kultura zaharra. Jatorrizkoa? Zaharkitua? Transgenikoez kutsatua? Gutxienez, eztabaidarako gaia.

Praktikan, bereiz al daiteke euskal kultura espainiar kulturatik edo frantziarretik?

Hortxe gakoa. Kultura, jarduera kulturala, ezin da burdinazko harresietan gorde, bizitza bera baita, kanpoko beste kulturekin harremanetan dagoena. "Eusko" lurralde honetan hemengo "kultur gaiak" biltzen eta egituratzen ditugun arabera osatuko dugu "euskal" kultura, betiere **Euskal Herria ardatz hartuta**. Bestela, Espainiako, Frantziako edota Europako eskualde gisa hartuta, beren kultur mordoaren adieraz-



pen erregional bihurtuko dute gurea. Gaiak, datuak antolatzen ditugun moduaren arabera, gure buruan herri baten kultura osatuko dugu, edo beste baten zati den kultura.

Horretan datza identitatearen mamia, ezagututako gaien antolaketan?

Ezagutzaren esparruan bai. Baina ezagutza prozesuaren garapenean, sentsazioak, emozioak, maitasun eta gorrotoak sartzen zaizkigu datuekin batera, ezinbestez. Gizakiak ezin du datu bilketa neutrorik egin. Burmuinak ez lituzke bilduko, inprimatuko. Datu horiek gordetzeko agindu emozionalik ez badago, ihes egingen digute. Pertsona bakoitzak bere afektibitate ahalmenaren araberako ekimenerako azkartasuna edo moteltasuna du. Nortasunean datza, beraz, erabakiak hartzeko gaitasuna eta ondorengo ekimenterako prestutasuna. Herri edo gizataldeetan *identitate* deritzogu horri.

Hortaz, ezagutzaren eta ekimenaren arteko zubiarena egiten du nortasunak?

Bai. Horretan ez historiak, ez soziologiak ez dute arreta berezirik jarri

oraintsu arte. Gure sentsazioak eta emozioak neurtzeko tresneria izan arte nekez deskribatu ahal izan dira jokareen prozesuak -Freud eta lagunek zaila izan zuten-. Neurologiak, ordea, ezagupenetik ekimenera doan bidea aztertzeko tresnak eskuratu ditu. Horiekin prozeduraren "teknologia" ikus dezakegu. Bertan azaltzen da ezagutza prozesuaren bizitza -kultura eraginkorraren prozesua-: zer garen (ezagutzen duguna), nolakoak sentitzen garen eta egunez egun egingo dugunaren arteko koherentzia. Horren arabera gizaki orekatua edo traumaz beteriko gizagai-

xa izateko jokoan ari gara.

Nola azalduko duzue hori guztia ikastaroan?

Ikastaroan ikus-entzunezkoak erabiliko ditugu darabiltzagun kontzeptuen mapa eta jarduera erakusteko. Ondoren, lantaldeetan antolatutako hausnarketaz baliatuz, Euskal Herriak dituen erronkei irtenbide egokia bilatzeko ildo ez eztabaidatuko dugu. Aipatu bezala, argi gera bedi *bizitzan ibiltzeko kultura* behar dugula, ez bizitzatik at gera daitekeena, zama eta nahasmena besterik ez lekarkigukeena.



Kultura, jarduera kulturala, ezin da burdinezko harresietan gorde, bizitza bera baita.

Ahozkotasuna

Ahozkotasuna eskolan lantzeko metodoa



Andoni EGAÑA

BERTSOLARIA



Joxerra GARZIA

EHUko IRAKASLEA

Gauregungo gizarte aurreratu-abe-ratsak aztertu dituzten ikerlariek aho-batez aitortzen dute ahazkotasunak (ahoz modu eraginkorrean komunika-tzeko gaitasunak) gero eta garrantzi handiagoa duela, eta ez jardun esparru jakin batzuetan soilik, jardun esparru guztietan baizik.

Eskolan, ordea, eta salbuespenak salbu, apenas eskaintzen zaion arreta-rik kontu, itxura guztien arabera ezin-besteko, horri. **Ikasleak mundurako prestatzea baldin bada eskolaren ze-regin nagusia, ezin esan, beraz, zuzen ari denik ahazkotasunari dagokion alorrean.**

Idatzizkoan ere, zuzentasunaren ikuspegia lehenesten du ia beti esko-lak, egokitasunaren kaltetan. Gauzak horrela, gaude hezkuntza sistema erro-errotik irauli beharra dagoela. Egin be-harreko lanaren eredu izan nahi luke ikastaro honetan aurkeztu nahi dugun metodoak.

Gurea ez da bertsolaritza lantzeko metodoa, baina bat-bateko bertsoak hartzen ditugu abiapuntutzat. Alde ho-rretatik, ezinbestekoa da bat-bateko bertsogintzaren oinarri nagusiak eza-gutzea. Besteak beste, bertsolaritzaren alderdi erretorikoaz jabetzeko. Esko-lak ikasleen ahazko komunikazio gai-tasuna landu eta bermatu nahi badu,

ezin dezake alboratu utzi gure gizartean ahazko komunikatzen arrakasta gehien lortu dutenen jardun eredugarria. Gai-nera, bertsoa neurri-neurriko diskur-tsoa da, eta lanketarako ezinago ego-kia. Aurkeztuko dugun metodoa zortzi urteko lanaren emaitza da, eta birritan probatua dugu, aplikazio esperimenta-len bidez, hainbat eskoletan.

Aplikazio esperimental horietan dagoeneko probatuak ditugun hainbat unitate didaktikoren azalpen praktikoa (aplikazioaren simulazioa) izango da ikastaroaren ardatz nagusia, unitateok behar bezala ulertzeko (eta berriak sor-tzeko) ezinbestekoak diren erreferen-tzia teorikoekin batera.



**Eskolan ahozko-
tasuna lantzeko
metodoa aurkez-
tuko dugu, bat-
bateko bertsoak
abiapuntutzat
hartzen dituen.**



Bigarren hizkuntza

Bigarren hizkuntzaren jabeakuntza, ikaskuntza eta irakaskuntza



Uri RUIZ BIKANDI

EHUko IRAKASLEA

Psikolinguistikaren munduan, bigarren hizkuntza deitu zaio etxeko hizkuntzaren ostean (hau da, lehen edota ama hizkuntza deiturikoa) ikasi den hurrengoari. Atzerriko hizkuntza ez bezala, bigarren hizkuntza inguruan presente dagoen neurrian, ikasteko erraztasunak eskaintzen ditu. Horren ondorioz, bere menderakuntza harena baino hobea izatea espero da.

Bigarren hizkuntza edozein hizkuntza izan daiteke. Etxeko euskaldunentzat, adibidez, gaztelania da gure artean, eta etxean gaztelania ikasi dutenentzat, euskara. Txiki-txikitatik ingurune naturalean hizkuntza biak batera ikasi dutenek bigarren hizkuntza beste hirugarren bat izango dute. Horregatik “gainerako” hizkuntzez hitz egiten da, hizkuntzen ezagutza gero eta anitza-

goa baita. Baina bigarren hizkuntzaz hitz egitea oso beharrezkoa zaigu oraindik, ez soilik ezagutza esparru baten termino zehatza delako, baizik eta eskolako hizkuntzen aurrean gure ikasleen arteko bereizkuntza egiteko orduan eduki handiko kontzeptua zai-gulako. Premiazkoa zaigu ikasleen egoera eta hizkuntza ikaskuntza bidean dituzten beharrak identifikatzeko eta horren ondorioz egin diezazkiegun laguntzak eratu eta egiten dituzten aurrerapenak hobeto ebaluatu ahal izateko.

Gure eskolak bigarren hizkuntzak irakasten ditu: gaztelania kasu batzuetan eta euskara gehienetan. Bi hizkuntzen egoera soziolinguistikoa zeharo diferentea izanik, hizkuntza baten eta bestearen irakaskuntzaren problemati-

ka ez da bera, berdina ez denez bakoitzaren trataera beharra inguru soziolinguistikoko desberdinetan. Etxeko euskaldunen euskara maila eta etxeko erdaldunena ez da bera, bera ez den moduan batzuek eta besteek egiten duten gaztelania. Baina batzuek eta besteek hizkuntza bakoitzaren menderakuntza ona lortzeko dituzten oztupoak eta erraztasunak ere ez dira berberak. Hizkuntza lehena edo bigarrena izateak alde handia markatzen du, eta baita hizkuntzaren estatusak, inguruan duen presentziak, funtzioak eta erabilerak. Faktore horiek guztiek eragina dute ikaslearen hizkuntza ikasketa prozesuan.

Faktore sozialez aparte, barne faktoreek eragin handia dute ikaslearengan: bere buruak hizkuntzak jasotze-



ko, gordetzeko, gogoratzeko eta erabiltzeko dituen bideak eta mugak ez dira gutxiestekoak. Ikaslearen behar kognitiboetara egokitu nahi badugu, horiek ezagutu beharra dago, eta egokitzapena premiazkoa zaigu irakaskuntza ona lortzeko. Bigarren hizkuntzak bide luzea egiten du hiztunak bere egiten duen arte, hartan eroso dabilen arte, hiztunaren buruak alde aurretik duenarekin batera kudeatu behar baitu jasotzen duen hizkuntza berria. Hizkuntza bien elkarren arteko eragina ezinbestekoa izanik, horren ondorioak laster dira ikusgarri. Hizkuntzen inguruko prozesu psikolinguistikoak uler-

tzea oso garrantzitsua zaigu hizkuntzei eskolan emango zaien trataera erabakitzeko, egiten denak ikasleengan dituen ondorioak interpretatzeko, zer den komenigarria erabakitzeko.

Ikastaroan bigarren hizkuntzen jabe-kuntzarako azalpen nagusiak aztertuko dira. Bereziki eskolako praktika-ren atzean hizkuntzaren jabe-kuntzaz eta ikaskuntzaz dauden usteak aztertuko da. Bereziki hizkuntzaren ikaskuntzan hori sustatzeko oinarrikoak diren jokabideak landuko dira.

Zer egin ikasleen berbetaren eskasiaren aurrean? Zer euren akatsekin? Nola jokatu? Bigarren hizkuntzaren ira-

kurketak ba al du oztopo berezirik? Zein, zeintzuk? Nola jokatu haien aurrean? Zein dira ikasleei agertzen zaizkien problema nagusiak bigarren hizkuntzan idaztean? Zer jakin behar da hizkuntzaren barne legez, gramatikaz, hizkuntza hobeto menderatzeko? Ala ez da behar?

Bigarren hizkuntzen ikerkuntzak pauso handiak eman ditu alde horietan guztietan eta handik atera ditzakegu zenbait irizpide gure praktikari laguntzeko. Hori da ikastaroan egiten saiatuko garena, praktikari begiratu, teoriaren argipean geletan gertatzen dena hausnartuz eta hobetze bideak asmatuz.



Ahotsaren erabilpen egokia



Jaione TXAPARTEGI

ARANSGIko LOGOPEDA

Gaur egun, zenbait ikerketaren arabera, irakasleen % 62k ahots arazoak dituela esan dezakegu. Kopuru horretan arazo organiko bat duten eta bestelako sintomatologia dutenen arteko bereizketa egin behar da. Horien artean, % 20k ahots kordetan hainbat patologia ditu, baina beste % 42k disfonia funtzionala du. Hau da, ahots kordetan ez dute gaitzik, baina ahots desagokiaren zenbait sintoma sentitu dituzte.

Ahots arazoan ondorioz baja kopuru gehien hartzen duen lantaldea da irakasleena.

Bi hitzetan laburbiltzeko, arazo horiek arrazoi hauengatik sor daitezke:

- Ahotsaren gehiegizko erabilera (abusua): asko hitz egitea, oihu egitea, ez-tula...

- Ahotsaren erabilera desagokia: intentsitate edo tonu desagokian hitz egitea, arnasketa ez ondo koordinatzea...

Beraz, irakasleek ahotsarekin zeri-

kusia duten arazoak badituztela baiezta dezakegu. Gure ahotsa nekatzea eta ahots esfortzu handia egitea honako egoera hauen ondorioz izaten da: haur kopuru handia duten taldeen aurrean hitz egiteagatik, talde zaratatsuak izateagatik, arnasketa egokiaren kontzientzia ez edukitzeagatik, segidan ordu gehiegiz hitz egiteagatik, intentsitatea ez kontrolatzeagatik...

Komeni zaiguna zera da: ahots esfortzua gutxitzea eta ahotsak dituen aukera zabal guztiak barneratzea. Eta horretarako, ahots teknika egokia erabiltzea interesatzen zaigu.

Lehenik eta behin, ahots hitz egina-
ren erabileraren oinarri bat izatea lortu nahi dugu. Nola lortuko dugu teknika egokia, ez badakigu ahotsa zer den eta nola lortzen den edo ez baditugu ahotsaren ezaugarri nagusiak ezagutzen?

Ezin dugu gure ahotsaren kontrol egokia eduki, ez badakigu intentsitatea

zer den, eta nola kontrola dezakegun ez badugu ikasten... Gauza bera gertatzen da ahoskatzeaz, erritmoaz, elkarriketarako ohiko tonuaz edo ahotsaren proiektzioaz aritzen bagara.

Bestalde, norberak bere ahotsa eza-gutzeak ere garrantzi handia du, norberaren ahotsa noraino irits daitekeen eta egoera bakoitzean ahotsaren erabilerak nolakoa behar duen izan jakiteko.

Pertsona bakoitzak bere ahotsa du, eta ahots horrek ezaugarri berezi batzuk ditu. Tinbreak, tonuak eta intentsitateak ematen diote bakoitzaren ahotsari identitatea. Horietako batek huts egiten badu, honako ondorio hauek dakartza:

- Hitz egitean haize hotsa entzutea.

- Intentsitate baxuan ahotsa ateratzeko zailtasunak edukitzea.

- Eguna bukatzean ahotsa nekatuta sentitzea.

- Ahotsa indarrrik gabe edukitzea.



- Hitz egitean ahotsa puskatzea.
- Eztarrian zerbait arraroa sentitzea (presioa, bola bat...).

Sintoma horiek guztiak norberaren gorputzean bereizten eta ahal den neurrian saihesten ikasiko dugu.

Bereziki, azken urte hauetan ahots arazoez eta disfoniak haurrengan izan duten gorakada nabarmena aipatu nahi nuke. Horretan inguruko giroak, zaratak, imitazioak... eragin handia izan du. Hori dela eta, irakasleak nola jokatu jakin behar du: jolas garaietan eta gela barruan ahotsa kontrolatu, norberak ahotsa egoki erabili hurrek ere du izan dezaten saiatuz...

Gaur egun irakasleengan sortzen diren patologia ezagunenak ere landuko ditugu: laringitisak, noduluak, polipoak, edemak, korditisak, banden hipertonia...

Ikastaro honetan ahotsa egoki erabiltzen ikasiko dugu, praktika eginez. Honako hauek izango dira landuko ditugun atal nagusiak:

- Arnasketa egokia nolakoa den ikasiko dugu. Diafragmaren mugimendua eta euskarria, fonazio denborak nola luzatu, zer egin aieretik gabe ez gelditzeke, botatzen dugun airea nola erregulatu...

- Erlaxazioa: tentsio muskularrak gutxitzen saiatuko gara, lepo eta sorbaldako erlaxazioaz gain, orokorra ere egingo dugu.

Hitz egiteko orduan postura egokia mantentzeak duen garrantzia ere ikasiko dugu. Horrek guztiak airea urdailetik bultzatzea errazten digu. Presio gehiago lortzen dugu eta airea hobeto aprobeatza dezakegu.

- Artikulazio eta erresonantzia egokia erabiltzen badugu, ahotsa esfortzurik gabe eta era lasaian aterako zaigu.

Horrela, intentsitate egokian, ondo ahoskatuz eta erritmo egokian hitz egiten eta ahotsaren proiektio egokia lortzen ikasiko dugu.

- Prebentzio neurriak: inguruko zarata ahal den eta baxuena izatea, ez erretzea, hidratazio maila ona mantentzea... Eta gure ahalmenaren gainetik ez hitz egiten, ahots baliabideak ondo erabiltzen, gehiegizko oihuak saihesten, eztula ez egiten saiatzen... ikasiko

dugu.

- Azkenik, ikasi duguna eguneroko ahots hitz eginean aplikatuko dugu. Ikasgai bat ahoz aurkezten, irakurtzen, haur kantak abesten, ipuinak kontatzen...

Azken finean, eguneroko eginbeharretan ahotsa ahal den eta erarik erlatuenean eta nekerik gabe erabiltzen ikastea izango da gure helburu nagusia.



Harreman afektiboak

Harreman afektiboen garrantzia lehen adinean




Xabier ITURBE

PEDAGOGIAN DOKTOREA, FILOSOFIAN
LIZENTZIATUA ETA LEKEITIOKO ESKOLAKO
ZUZENDARIA

Gizartea aldatzen ari da, eta aldaketa horrekin batera, eskola eta irakas-kuntza bera ere aldatzen ari zaizkigu. Aldaketa horien eraginez, irakasleok gure burua birkokatu beharra dugu. Egun, ikaskuntzaren alderdi akademikoa lantzea ez da nahikoa, eta gero eta argiago ageri da alderdi emozionala eta afektiboa akademikoa bezain garrantzitsuak direla ikasle eta irakasleen ongizatearen etorkizunerako... Baina nola landu alderdi horiek guztiak, ordea?

Tamalez, ez dago errezeta magikorik, baina zeregin honetan oso lagungarria izango zaigu zenbait teoria edo ikuspuntu aztertzea. Haurrekin harreman afektiboak lantzen lagunduko di-



Iñaki KARRERA

EHUko PEDAGOGIA FAKULTATEKO IRAKASLEA

guten zenbait puntu aztertuko ditugu, hala nola:

- Giza Izate Sexuala: *sexua edo sexuaketa prozesua, sexualitatea, erotika eta amatoria*. Gizakien arteko harremanak sortzeko beharrezkoak diren afektu eta emozioen garrantzia. Sexualitateaz hainbat eta hainbat gauza entzun, irakurri eta esaten dugu. Denok daukagu gai horretaz zer esana eta zer bizia. Baina askotan, beti ez bada ere, bakoitzak berarekiko esaten duena edota lagun artean komentatzen dena kontraesanean agertzen da gizarteko iritzi orokorrarekin edo, hobeto esanda, gizartean etengabe iritzia sortzen eta garatzen ari diren eragileekin,



Mapi URRESTI

KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOKO
PSIKOLOGOA

eta konkretuki, komunikazio eta publizitate sare boteretsuekin; nahiz eta beste askotan, zoritxarrez, eragile horien jokoan jausi.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa iruditzen zaigu Giza Izate Sexualari edota gizakion sexualitateari buruzko ikuspegi zientifikoa eta gaurkotua eraikitzea, bai gizarteko eredu hegemonikoei aurre egiteko eta baita gure ikasleen erotika, afektu eta sentimenduak lantzen eta garatzen hasteko ere. Horretarako, Efigenio Amezuak 80ko hamarkadan giza sexualitateari buruz egindako oinarrizko ereduak landuko dugu, eta baita gai horretaz azken urteetan egin diren ekarpen esangura-



tsuenak ere.

- Atxikimendu edo lokarri segurua-
ren eraikuntza: atxikimendua (loka-
rria) haurrak zenbait pertsonarekin
egiten duen afektuzko lotura gisa. Atxi-
kimendua jaiotzez sortzen den jokaera
da, haurrak bere zainketa eragiteko
hainbat gaitasun eta ahalmen eraikitze-
ko prozesua. Pertsona batzuekin egi-
ten den lotura afektibo hori era segu-
ruan eraikitzea garrantzitsua da, eragi-
na izango baitu haurrak etorkizunean
izango dituen harremanetan eta bizi
kalitatean. Atxikimendu segurua duten
haurrek besteekiko konfiantzazko ha-
rremanak sortzen dituzte, beraien bu-
rria baloratzen dute eta besteen maita-
suna sustatzeko ahalmena dute. Ondo-
rioz, eragin zuzena du, besteak beste,
gizakiaren nortasunean zein autoesti-
muan.

- Hasieran atxikimendua pertsona
batekin izateko joera badago, gerora ez
da pertsona bakar batekikoa izaten.
Haurarentzat aberatsa da atxikimendu
irudi anitz edukitzea: ama, aita, aiton-
amonak, osaba-izebak... baita irakas-
lea ere. Ondorioz, bai haurraren gara-
pen egokia sortzeko, bai eta haren ira-
kasleak gusturago lan egiteko ere, ira-
kaslearentzat garrantzitsua da atxiki-
mendua nola eraikitzen den eta zein
faktore diren garrantzitsuak aztertzea.
Aipatutakoa kontuan hartuz, ikastaro
honetan atxikimendu segurua sortze-
ko, irakasleak lokarria nola eraiki behar
duen eta atxikimendu figura izateko
zer orientabide dauden aztertuko ditu-
gu: gorputz jarrerak, komunikazioa, es-
kuragarritasuna, mugarik gabeko mai-
tasuna...

- Atxikimendu sendoa edukitzeak
haurra emozionalki seguru sentitzeko
giroa sorrarazten du, eta hori haurraren

mundu emozionalean sartzeko lehen
pausoa da. Gaur egun argi geratzen da
emozionalki gai den haurrak ongizate
afektibo eta sozial handiagoa sentitze-
az gain, arrakasta handiagoa duela bai
eskolan eta bai ondorengo eremu pro-
fesionalean. Bestalde, haurrek gaur
egun ordu asko pasatzen dutenez es-
kolan, askotariko emozioak bizi eta es-
perimentatzeko aukera dute. Gelan he-
ziketa emozionala lantzeak abantaila
asko sortzen ditu: batetik, haurrari bere
garapen emozionalean laguntzen dio,
baina, bestetik, giroa ere hobetzen du.
Ondorioz, irakaslea ere gusturago da-
go bere lanean. Horrela, irakasleak gel-
an heziketa emozionala lantzeko zere-
gin dezakeen aztertuko dugu; alegia,
emozio, sentimendu eta afektuak mo-
du burutsuan erabiltzeko behar diren
gaitasun edo ahalmenak aztertuko di-
tugu:

*Emozio, sentimendu eta afektuak
modu burutsuan erabiltzeko behar di-
ren gaitasun edo ahalmenak:
emozioen kontzientzia hartzea, senti-
tzen duena izendatzen jakitea. Emozio-
ak onartu eta ulertu, norberarenak eta
besteenak.

*Enpatia: besteen emozioen kon-
tzientzia hartzea. Enpatiak laguntza
sustatzen du eta pertsonen arteko ha-
rremanak aberasteaz gain, erasoaren
inhibitzailea da.

*Mugak: emozio guztiak dira zile-
gi, baina horrek ez du edozein jokabide
joratzeko eskubiderik ematen, ezin
baita edozer gauza egin. Espresio
arauak ezagutzea eta errespetatzea
ezinbesteko izango dugu.

*Emozioak erregulatzea. Horien
intensitate eta iraupena erregulatzea:
modulatzeko mekanismoak.

- Pertsonaren identitatearen erai-

kuntza: estereotipoak eta rolak. Se-
xuen arteko edertasun estereotipoak
eta horietako bakoitzak jokatu duen ro-
la ez dira beti bera izan, denboraren po-
derioz eta interes zehatz batzuen arabe-
ra aldatuz joan dira. Zein da, ordea, per-
tsonaren identitatearen eraikuntza pro-
zesuan faktore horiek egun duten era-
gina? Are gehiago, zer bilatzen ote dute?

Galdera horien erantzuna bilatzeko
zenbait puntu aztertzea ezinbestekoa
zaigu. Horretarako, saioaren hasieran
gure ingurune hurbilean gertatzen de-
na aztertuko dugu. Norberaren espe-
rientziatik abiatuz haurren rolak eta gi-
zarte honen estereotipo esanguratsue-
nak arakatuko ditugu; ondoren, horren
guztiaren aurrean irakasle gisa “dife-
rentzien berdintasuna” deituriko pro-
posamenean hezi ahal izateko zer egin
dezakegun landuko dugu. Neskato ala
mutikoaren binomio mugatzailea gain-
dituz, erabakigarria izango dena kon-
tuan hartuz, pertsonaren alderdi intra-
personala eta interpersonala garatze-
ko orientabideak eskainiko ditugu.

Zutabe horietatik abiatuz, irakasle-
ok gelan haurrekin eta baita haurrek
beraien artean ere harreman eta biziki-
detza egoki zein gustukoak lortzeko
egin dezakeguna aztertuko dugu, be-
tiere metodologia aktiboaren lagun-
tzaz (talde txikietan, talde handian...) eta partaide guztien arteko esperien-
tziak eta elkarrizketa ardatz hartuta.

Harremanak gelan

Txokoak, negoziaketa eta bitartekaritza: gatazkak konpontzeko hainbat prozedura



Amaia AGIRRE

FORMATZAILEA, BITARTEKARIA, ETA
GEUZeko PARTAIDEA

Ikastaro honen helburu nagusia irakasle eta ikasleen arteko harremanek eraikitzen dituzten espazio berriez mintzatzea da, non errespetua, onarpena eta elkar ulertzea bideratzen diren.

Gelako harremanez ari garenean, bizikidetzaz edo gatazken ebazpenez ari gara. Eskola, haurren garapen sozial, afektibo eta moralerako inguru egokia da, etengabeko ikasketa esparrua baita. Bertan ikasleak bere jokabideak, emozioak, trebetasunak, arauak eta abar praktikatzeko dituzte.

Ikaslearentzat ikastetxea eta, batez ere ikasgela, bere gizarte txiki bihurtu dira, hor landuko baititu bere gaitasunen garapena, trebetasun sozialak eta parte hartzeko eta besterekin errespetuzko balioak.

Ikastetxean bizikidetzak lantzeko eta giro egoki bat lortzeko, gatazken ebazpenean eta bake kulturaren oinarritzen den hezkuntza landu beharko litzateke. Horrek eskolan aldaketa sistemiko bat sortuko luke, eta ez soilik aldaketa kurrikular bat (Ramón Alzate).

Eskolan sortzen diren harremanak lantzeko, *Bizikidetzak Eredu Global* bat proposatzen dugu. Eredu horrek, esku-hartze hezigarrian oinarrituz, eskolaren bizikidetzak ereduaren aldaketa proposatzen du. Eredu horren helburua, gatazken eraldapen baketsuak eta aniztasunaren printzipioak ikastetxean gertatzen diren harreman guztietan eragina izatea da. Eredu honek, prebentzio eta eraldaketarako ikuspuntua izanik, ikastetxeko elkarbizitzaren bost

eremuetan du eragina: diziplina sisteman, curriculumean, pedagogian, eskolako kulturaren eta familian. Hori guztia burutzeko hainbat programaz osaturik dago: Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako eta Batxilergorako gatazkek eraldatzeko curriculum programa, irakasleen prestakuntza programa, sendiaren bizikidetzak programa, diziplina positiboa programa, gatazkek ebazteko lankidetzak-prozedurak (bitartekaritza, negoziatzea, kontsentsu prozesuak...), programa psikosozialak (droga-mendekotasunen prebentzioa, berdinaren arteko erasoaren aurkako programa...), hezkuntza sozioemotionala eta lankidetzak ikaskuntza.

Ikastaro honetan bi esparru ukitu nahiko genituzke. Alde batetik, esku



hartzeko programa psikosozial bat landuko da, berdinen arteko erasoaren aurkako programa; eta bestetik, gatazkak ebazteko lankidetzaren prozedura bat, bitartekaritza programa.

Pertsonen arteko harremanetan oinarrituta dagoen hezkuntza egoki bat lantzeko oso garrantzitsua eta beharrezkoa da ikasleari argi eta garbi agertzea indarkeria eta gehiegikeriazko jokabideak onartezinak direla, gatazkak konpontzeko desgokiak eta psikologikoki eta moralki mingarriak direla. Indarkeria fenomeno sozial eta psikologiko bat da; soziala, pertsonen arteko harremanetan garatzen delako, eta psikologikoa, parte hartzen duten per-

tsona guztiengan eragin ezkorak dituelako: biktimarengan, erasotzailearengan eta ikusleengan. Biktimek autostimulariaren eta autokontzeptuaren narriadura sufritzen dute. Erasotzaileak ezkutuko kontzientzia batekin erlacionatzen dira, beren garapen sozio-personalean eta moralean eragin handia izanik eta jokabide kriminaletara gerturatuz. Ikusleak ere moralki inplikaturik daude, eta beldurrezko eta erruzko sentimenduak izaten dituzte. Beraz, bullying-aren aurka esku hartzen duen programa batek, biktimak, erasotzaileak eta ikusleak kontuan izango ditu, denek parte hartzen dutelako eta indarkeriak guztiengan ondorio ezkorak dituelako.

Bestalde, gatazka prozesu natural bat izanik, interes eta behar desberdinak daudenean gertatzen da, baina ez du beti indarkeria sortzen. Hori kontuan izanik, gatazkak konpontzeko hainbat lankidetzaren prozedura daude; haien artean Bitartekaritza dago. Bitartekaritza programak partaidetzan, elkarlanean eta elkarrizketan oinarriturik daude, eta horien helburu nagusia eskolan gertatzen diren gatazkak konpontzearena da.

Ikastaro honetan hemen aipatutako kontzeptuak eta lanildoak garatuko dira. Gai horiek lantzeko, esperientziak irakatsi digunari eta irakasle gehiengoak eskatzen duenari jarraiki, praktikotasunean oinarrituko gara.



Ikastetxean bizikidetzaren lantzeko eta giro egokia lortzeko, gatazken ebazpenaren eta bake kulturaren oinarritzen den hezkuntza landu behar litzateke.

Adimen emozionala

Umorearen erabilpena



Ibon DE LA CRUZ

PSIKOLOGOA

Ongi etorriak:

Denok dakigunez, edozein ikastarotan, ongi pasatzeaz gain, hainbat tresna praktiko eskuratu nahi izaten ditugu. Horixe izango da gure helburua ere! Kasu honetan zein tresna praktiko eskuratu dugu? Bada, umorea!

Eta zertarako? Bada, hezteko tresna, hazteko tresna eta bizitzeko tresna delako.

Batzuetan umorerik ez dugula pentsatzen dugu, baina denok daukagu

geure umorea: serioa, barrezalea, sakona, isekaria, inuxentea ...

Horrez gain, umorea ikasi egiten da, eta ikasi egin behar da: tresnaz gain, egunero bizitzeko filosofia da, eta ikusiko dugunez, bizitza arintzeko, edertzeko eta gozatzeko modu egokia da.

Nola landuko dugu gai hau? Bada, modu dibertigarrian.

Beharko dugun teoria ikusiko dugu, noski, baina denbora gehiena jokoak eta dinamikak egiten igaroko dugu, noski. Gure lanean zerbait erabili behar

badugu, hoberena aurretik guk geuk probatzea da!

Partaide bakoitzak joko zerrenda luze bat eskuratu du, baina horrez gain, eta garrantzitsuagoa dena, joko bakoitzaren nondik norakoa ezagutu du: helburuak, metodoa, prestakuntza, materiala, dinamizatzaileren jokaera...

Zein da ekarri behar den materiala? Arropa eroso, urtean zehar jaso ditugun tentsioak kentzeko gogo, eta, nola ez, irribarrea beti prest!



Coaching

Pertsona eta erakundeen garapena eta aldaketarako laguntza



Mirari BEREZIARTUA

COACHINGALDAKETA
COACHING ESKOLAKO KIDEA



Nerea REDONDO

COACHINGALDAKETA
COACHING ESKOLAKO KIDEA

“Ikastea, dakizuna deskubritzea da. Egitea, badakizula erakustea da. Irakastea, beste batzuei zuk bezain ondo dakitela gogoraraztea da”, Richard Bach

Euskal Herrian une honetan dugun egoerak aukera ezin hobea eskaintzen digu erronka berriei aurre egiteko. Paradigma edo ikuspegi teoriko berriak aplikatuz, bide berrien saiakeretan murgiltzeko aukera dugu. Orain arteko emaitzak ez baditugu nahi, bidea aldatu beharra dugu, beste ondorio batera iristeko. Hori da, hezkuntzari dagokionez, guretzat erronka bihurtu dena. Gainera, Euskal Curriculum propioarekin konprometituta, barneko aldaketa

sakona eskatzen digu horrek guztiak. Nola aldatu? Hor dago *coaching*aren ekarpena: aldaketa emate horretan laguntzen digu.

*Coaching*a, pertsona bati edo talde bati laguntzeko modu bat da. Bakoitzaren gaitasun guztiak maila gorenean erabiltzeko parada ematen du. Horrek esan nahi du, pertsona edo talde horiei, beraien oztopo eta muga pertsonalak gainditzeko, coach gisa, bidea errazten laguntzen ikas dezakegula. Horrela, bakoitzak eman dezakeen onena nola eman deskubritzeko jardunbidea samurtu egingo diegu, eta taldekide gisa ere modu eraginkorrenak bideratzen lagunduko diegu, ikuspegi berri bat erabiliz. Horren arabera *coaching*ak,

arreta, jardunean adina, harremanetan ipintzea eskatzen du. Beraz, adimen emozionalari dagozkion abildadeak hartzen ditu kontuan bereziki.

Oztopoetan zentratzeko joera inertziaz erabili beharrean, helburuen lorpenean eta soluzioetan fokatzeko ikuspegia erabiltzen du *coaching*ak. Bere funtsa osotasuneko ikuspegian du.

*Coaching*ean “barneko jokoak” eta “kanpoko jokoak” bereizten dira. Timothy Gallwey garatutako kontzeptuak dira, eta bereziki kirolean hasi zen aplikatzen. “Kanpoko jokoak” irabazteko, “barneko jokoak” baliatzen laguntzea proposatzen du berak. Egoki jarduteko, barneko jokoaren funtsa mentalki prestatzean datza. Hain zuzen ere,



XXI. mendeko lanbide berria da *coaching*, pertsona eta erakundeen garapenerako osotasuneko ikuspegia duena.

egiten ari garen horretan ipintzen dugun fokatze mentala da “barneko jokoak”. Beraz, horrek kontuan hartzen du: jarrera, ziurtasuna (norberarengan edota taldearengan), modu eraginkorrean kontzentratzea, errakuntza eta presioa eramaten jakitea indar bihurtuz, eta abar.

Barneko eta kanpoko jokoak bateratzen direnean, jardunak dario. Oztoparen gainetik jariora dago. Horren adierazleak hauek izan daitezke:

- Kontzientziarekin jardutea. Egoeraz jabetzea barnera eta kanpora begira.

- Konprometituta aritzea jardunean. Arreta, modu bikain eta ederreko ekinean zentratua.

- Konfiantza osoa ipintzea norberarengan, nahi den helburua lortzeko.

- Ia-ia pentsatu gabe eta ahaleginik gabe, jardunak dario.

Adierazle horiek baieztatzen digute bi jokoak ondo loturik egiten gabiltzala eta osotasuneko ikuspegia dagoela gure jardunean.

Bidea modu horretan egiteko abileziak ikasi egiten dira. Horretan trebatzeko aukera eskaintzen dugu “Coachingaldaketa”tik. Coachvilleren sistemarekin eskaintzen dugun bereizgarri nagusia horretan dago, *coaching* praktikoa eta egituratua izatean. Gure eskaintza egitura jakin baten bitartez trebatzean oinarritzen da. Egin nahi dugun aldaketarako jarduna eraginkorra izateko modu bat da.

William James psikologoak dioen moduan, “gure belaunaldiaren iraultza, gizakiak bere barneko jarrera mentalak aldatuz, kanpoko bizitzaren jorak aldatzea lordezakeela jabetzea da”.

Euskal Herria eta ikaslea gure aldaketaren jomugatzat hartuz, merezi duen konpromisoa da, eta bai pertso-

nalki eta bai auzolanean modu desberdinean egiten ikasteko aukera dugu. *Coachinga* aldaketa errazteko bide berri bat da. Horretan lagun dezakegu, sostengua modu jakin batean emanez.

Arkimedesekezioen moduan, “emadazue sostengu puntu bat eta mundua mugituko dut”. *Coachinga* hori da, sostengu puntua ematea. Zuri dagokizu, hala nahi baduzu, mundua mugitzeko aukerak zabaltzea. Hezkuntzako munduak badu aldatu beharra, eta Euskal Herrian une honetan geure hezkuntza sistemarentz mugitzeko aukera dugu, ikuspegi berria erantsiz. Zuk sostengu puntu bat izan nahi al duzu? Guk trebatzen laguntzeko aukera eskaintzen dizugu.



Psikomotrizitatea



Elena HERRAN

PSIKOMOTRIZISTA ETA EHUko IRAKASLEA

Psikomotrizitatea eta jolasa 0-3 zikloan

Haurtzaroa eta jolasa loturik daude bizitzan eta irakaskuntzan eta, dirudie-nez, zentzuzkoa da horrelaxe izatea, horrek parketako zabuetan zein eskolako areto eta geletan eragina izaten du eta. Hainbat galdera egin ditzakegu jolasaren inguruan gure gaiari eusteko: zeri deitzen diogu jolasa? Zer zentzu dauka edozein haurrek sortzen duen berezko jolasak? Jolasetan noraino dago errepikapena eta noraino berrikuntza? Zein da egokiagoa, bakarka ala elkarrekin burutzen dena? Jolasa eta psikomotrizitatea gauza bera al dira? Zorionez, eskolan jarduera bakoitzak dagokion lekua eta denbora dauka; ikastetxe gehienetan jarduera fisikoak, mugimenduak, korrika, jauzika ibiltzeak badauka bere lekua: psikomotrizitate gela.

Henri Wallonen teoriaren ideia nagusi batzuk erabiliko ditugu psikomo-

trizitatearen mamia argitzen joateko. Haren ustez, nortasuna da norberaren mailaren, maila hori gauzatzean dugun inguruko zirkunstantzien eta zirkunstantzia horiekin erlazionatzeko gaitasunaren emaitza bateratua. Naturak agindutako haurraren haziera organoa, heltzea ahalbidetzen duena, handitzeaz arduratzen da. Haziera organoaren funtzionatzeko joera biologikoa da heltzea, eta nerbio sistemaren menpean dago beti. Helduz gero, funtzionatzen hasiz gero, portaeraren errepikapena dator, eta ikaste prozesua zabaltzen du, eta bide batez, heldutasuna bera areagotzen. Beraz, giza garapena hazieraren, heltzearen eta ikastearen emaitza bateratua da.

Psikomotrizitatea giza garapeneko esku-hartze modura uler daiteke. Ondorioz, osagai biak—garapena eta esku-hartzea—aztertu beharko dira, objektua

eta helburua bereiziz. Psikomotrizitatearen helburua haurraren garapena da, eta esku-hartzearen helburua, berriz, garatzen laguntzea. Abiapuntua dimentsio ebolutiboa da; haurraren garapenaren ezaugarriak, bilakaera eta gauregungo adierazpenak ezagutu behar dira sakonki. Aurrekoak baldintzatuturik, dimentsio didaktikoa dator; psikomotrizitatean aritzen denaren zeregin zehatzak haurraren berehalako maila gauzatzeko zirkunstantziak zaintzea eta berarekiko harreman baikorri laguntzea dira. Beste era batera esanda, psikomotrizistok beharrezkoa dugu saioak dinamizatzeko, mementoko errealitate fisikora eta sinbolikora egokitzeko gaitasuna.

Wallonen arabera, lehen haurtzaroaren funtzioa giza espeziearen prototipoa betetzea da. Hau da, biziaren lehen hiru urteen amaierarako, bizitza osoan



Psikomotrizitatearen helburua giza garapenari laguntzea bada, haurraren garapena eta harremanak zaindu behar ditugu.

zehir garatuko ditugun gaitasunen eta bizipenen mamia edo lehen ereduak gauzatzen da. Horregatik du horrenbesteko garrantzia aldi horrek, hasitako prozesuek bigarren haurtzaroan zehar tinkotzen, sendotzen eta malgutzen jarraitzen badute ere. Lehen eredu horren ezaugarri fisikoak aztertuko ditugu lehenik: erreflexuetatik borondatezko jardueretara, hau da, oinez, korrika eta jauzika egitera eta eskuak menderatzera. Emozioak eta giza harremanak elkarren segidan datoz, gizakiok genetikoki sozialak garelako, Wallonen arabera. Besteak ase behar ditu jaioberriaren eta haurtxoaren beharri-zanak. Honela, bien artean lotura afektiboa sortzen da. Giza taldeetan historikoki estimulu fisikoen gain giza estimuluak –sinbolikoak eta moralak– txertatu direnez, hizkuntza eta horrek hasieran gidatutako pentsamendua sortuz prototipoa osatuz doa.

Psikomotrizitatearen helburua giza garapenari laguntzea bada, haurraren garapen zirkunstantziak eta berarekiko harremanak zaindu behar ditugu bereziki. Tresna garrantzitsuenak jarrerak eta espazioaren eta denboraren antolakuntzarako gaitasuna dira. Jarrerak –entzumen enpatikoa, legearen ikurra eta lagun sinbolikoa izatea– alde psikikoaz –sinbolikoaz zein moralaz– arduratzen dira nagusiki, eta espazioaren eta denboraren –materiala barne– antolaketarako gaitasunak, berriz, estimulu fisikoekin du zerikusi handiena.

Amaitzeko, bertikaltasunaren garrantziaz hausnartzeko unea izango dugu. Beste animalia guztiengandik bereizten gaituena giza espeziearen postura bertikala da. Horizontaletik eta lagundutakotik bertikalera eta autonomia doan bilakaera aztertuz gero, jauziaren zentzuaz arituko gara. Lehenen-

go jauzi sakonekin batera, banaketa bertikalaren bertigoak “ohe” edo “etxetxo” eskakizuna dakar, eta berehala “otsoa” agertzen da psikomotritate aretoan. Irudikapenaren bilakaera aurrerantzean ikaragarria da, berezitasun eta adierazpen pertsonalak askotarikoak.





Fultxo CRESPO

VIANAKO ERENTZUN IKASTOLAKO IRAKASLEA

Idazketa tailerretarako baliabideak

Eskolak idazketan trebatu behar ditu ikasleak. Era guztietako testuetan trebatu behar ditu: narratiboak, informatiboak, azalpen testuak, instrukzio testuak... Halaber, beste nonbaitetik ateratako informazioa birmoldatzea, laburbiltzea eta antolatzea ere eskatzen diegu sarritan gure ikasleei. Helburu hori kontuan hartuta eta funtzionaltasuna tarteko, hainbat proiektutara jo izan dugu beti. Aldizkari, egunkari, triptiko, txartel, pankarta, horma-irudi... eta horrelakoez baliatu izan gara.

Azken urteotan horri guztiari beste erronka berri bat gehitu behar izan dugu; informazio eta komunikaziorako teknologiek (IKT) bateratzea arestian aipatutako guztia. Hartara, bi helburu batera lortzekotan gaude. Batetik ikasleak idazketan trebatu, eta bestetik IKTak eguneroko irakaste-irakaste prozesuan erabili. Zer esanik ez, gainera, zer-nolakoa motibazioa izatendutengure ikasleek IKTak erabilita.

Publisher baliabide egokiak

Aipatutako afera horretan Publisher programak paper garrantzitsua jokatuko du. IKTak eskolan sartzen hasi zirenetik ahal izan dugun moduan moldatu behar izan dugu, eta baita hainbat egoerei aurre egin ere, besteak beste, ekipo egokiaren falta, proiektu informatiko batengabezia, irakasleen formazio falta, software mugatua... Idazketa lantzeari dagokionez, normalean Word programara jo izan dugu. Denok eza-gutu izan dugun testu prozesadore bakkarretakoa.

Poliki-poliki eskola guztietan IK-Ten egoera hobetzen joan da, eta, une honetan sartzen da jokoan Publisher programa. Microsoft-ekoa izanik, daukan itxura oso ezaguna egingo zaio-ikasleari Wordenaren antza handia duelako. Gainera, ez dugu aparteko arazorik izango eskuratzeko, Office 2003ren batera baitator.

Ikastaro honetako ikasleak baliabide aberats bat aurkituko du Publisher programan. Word baino askoz ere egokiagoa da arestian aipatutako proiektuak aurrera eramateko orduan. Izan ere, Publisher maketazioak egiteko programa da. Bertan testu zein irudiekin erraz egingo dugu lan, Wordek horretan dituen mugak gaindituz. Modu berean, Wordetik zein Internetetik ekarriko ditugu testuak (edo irudiak) Publisherre inongo arazorik gabe.

Eta nola ikasiko dugu Publisher erabiltzen?

Ikastaro honen metodologia erabat funtzionala izango da. Teoria praktikaren bitartez ikasiko du ikasleak. Horregatik, zenbait proiektu eramango ditugu aurrera, ondoren, gure ikasleekin egingo dugun modu berean. Proiektuak, gainera, zabalak izango dira, hots, era sinpleago edo konplexuagoan burutu ahal izango dira norberaren gaita-




Publisher maketazioak egiteko programa da eta web guneak sortzeko aukera ere ematen du.

sun eta erritmora moldatuz.

Ikastaroan aurrera eramango ditugun proiektuak honako hauek izango dira nagusiki:

- Kartelak eta pankartak.
- Liburuxkak.
- Aldizkari edo egunkariak.
- Argazki nobela
- Argazki liburuxkak
- ...eta taldearen arabera sor daitezkeen beste batzuk ere bai.

Web 2.0ko eferbeszentzia garaian gaudela dirudi, papera desagertzeaz dagoela diote IKTko guruek. Egia esan, paperaren erabilera gero eta gehiago murrizten ari da posta elektronikoa eta Interneti esker. Hala ere, papera oraindik euskarririk egokiena da testu luzeak irakurtzeko eta ez litzateke zentzuzkoa izango egun bate-tik bestera baztertea edo kontuan ez hartzea. Betikoa, euskari edo medio bakoitzak bere esparru edo funtzio beteko du eta guri egokituko zaigu, interesatzen zaigunaren arabera, bata edo bestea hautatzea, hots, papera edo pantaila.





Antton IZTUETA

GETARIAKO IZTUETA IKASTOLAKO IRAKASLEA

Hainbat jarduera Power Point baliatuz

PowerPoint aurkezpenak egiteko programa da, jakitun garenez. Halere, etekin handiagoa atera diezaiokegu beste planteamendu batzuk eginez gero. Zehazki, azalpen testuak lan ditzakegu; ipuinaren mundu magikoan sar gintezke: kontaketa, ulermena, irakurketa, arreta, idazketa... Gure hizkuntzaren gatzeta eta piperra diren esamoldeak jorra ditzakegu. Kanturako tresna egokia da programa hau. Onomatopeiak, deskribapena, buru kalkulua, bertsogintza... eta abarrerako ere oso baliagarria zaigu.

Ikastaro honetara zenbait proposamen praktiko ekarri nahi ditugu Lehen Hezkuntza guztirako. Hiru eratako ariketa eta jarduera egingo ditugu **programen eta jardueren inguruan**.

PowerPoint programaren emaitzak

biziak eta entrenigarriak izateko, beste bizpahiru programa eta baliabideren laguntza ezinbestekoak dira: Photoshop eta audioa editatzeko programa; eskanerra, argazki-kamera, GIF animatuak, grabagailua, pendrivea, hiztegiak, liburuak, web orriak...

Photoshop:

- eskaneatu
- paleta eta tresnen zenbait erabilpen:

- * irudia aukeratu, mugitu, lazoa, makila magikoa, moztu, pintzela, klonatu, ezabatu...

- * irudia kopiatu, eraldatu. Kolorea: kurbak, distira, kontrastea... kapak... filtroak...

- * irudiari hondoa kendu eta GIF bezala gorde

* testua: filtroak, GIF gisa gorde

WaveStudio, audioa editatzeko programa:

- ahotsaren grabaketa (baldintzak)
- musika zatiak egin
- edizioa: ordenadorera bidali, isilune txertatu, moztu, isilarazi, soinua biziagotu, bolumena igo eta jaitsi, nahasketak egin...

PowerPoint 2002 bertsioa:

- irudia txertatu edo hondoa landu
- objektua edo irudia animatu
- animazioa noiz jarri martxan
- animazio-ordenak aldatu
- soinuak txertatu (hainbat modu)

Azalpen testua:

Eta, nondik hasi? Bada, errazenetik.



Azalpen testu bat nola egin ikasiko dugu. Eta horretarako, *antzinako* egiptotarrak eta erromatarrak gaiak aitzaki izanik, zenbait diapositiba lantzen saiatuko gara.

Esamolde jorran:

Ongi pasatuz, euskal esamoldeen mundua ezagutzea da helburua.

Ipuina da **abiapuntua**. Ipuinean dauden **ekintza eta egoerak** ongi **arabatu** ondoren, **esamoldeak txertatu** behar dira ipuinean bere haria aldatu gabe. Eginkizun horretan, Koldo Izagirrereren “*Euskal lokuzioak*” liburua oso baliagarria izango zaigu; berdin, *erabili.com* web orria, eta abar.

Ikasleei **zer egin behar dugun adierazi** behar zaie: ulermena landu; ipuina bera eta esamoldeak marrazkitara eraman; eskanerra maneiatzeko ikasi; guztien parte-hartzea bermatu; marrazkian gertatzen dena edo adierazi nahi duena idatziz eman hiruzpalau bat lerrotan; aurrez aipatutako istorio hori grabatu. Ikastaro honetan, dena egin ezin denez, ipuinaren abiapuntua alde batera utzi eta esamoldeen jorranketan murgilduko gara.

Ipuina piruliña:

Ipuin liburu bat ipuin digital bihurtuko dugu. Eta horretarako, hainbat material eta tresna eskura izatea komeni da: eskanerra, Photoshop, audio editatzeko programa, ahots grabagailua (digitala hobe), GIF animatuak, soinu efektuak eta abar.

Lau gaitasun eta hainbat jarrera eta

sentimendu bultzatu nahi dira: mintzamena, ulermena, irakurketa, idazketa, arreta, parte-hartzea, poztasuna, motibazioa...

Ikastaro honetan bi atal jorranko

ditugu: mintzamena eta ulermena hain zuzen, eta noski, elementu osagarriak albo batera utzi gabe: efektuak, GIF animatuak, ahotsa, musika ebakinak...



Photoshop

Irudiak hobetzeko eta egokitzeko programa osatuenetakoa da



Xabier LERTXUNDI

IRAKASLEA

Photoshop eguneroko irudiak hobetzeko eta egokitzeko erabil dezakegun programa osatuenetakoa da.

Teknologia Berrien erabilerak hainbat tresna digitalen ezagutza eta menperatze maila egoki bat exijitzeaz gain, software (programa) egoki bat ezagutzera ere behartzen gaitu.

Horretarako aukeratutako programa Photoshop izango da.

Irudia tratatzeko programa profesional baten aurrean egon arren, era erraz eta azkarrean soluzio izugarriak ematen dizkigu ikastetxeko eguneroko lanetarako.

Ikastaro honetan Photoshopek dituen oinarriko aukerak ikusi eta landuko ditugu.

Horretarako, Photoshop programa ardatz hartuta, ikastaro honetan zera ikasiko dugu:

- Sarrera: lan tokia ezagutu
- Irudiaren erresoluzioa eta neurria (inprimatu, weberako edo aurkezpen baterako)
- Esploratzailea
- Paleta nagusienak ezagutu
- “Erremintak” ezagutu
 - . Pintzela, “makil magikoa”, “klonatzeko tanpoia”, selekzio erak, lazoak...
- Artxibo motak: psd, jpg, gif, bmp (ezaugarriak)
- Kapak: erabilera eta aukerak
- Testua landu
- Kolorearen tratamendua: distira, kontrastea, kurbak, zuzenketak...

- Filtroen erabilera
- “Akzioak”

Ariketa praktikoak

- Eskaneatu (erresoluzio egokiak)
- Irudi baten pisua aldatu (weberako egokitu)
- Irudi bati fondoa kendu
- Irudi desberdinekin muntaiak egin
 - Web galeriak egin
 - Argazki zahar bat berritu
 - Begi gorriak zuzendu
 - Kartelak eta iragarkiak egin
 - Argazki bat hobetu: kolorea, argitasuna, enfokea...
 - Pertsona baten azalaren itxura gaztetu



-Txuri-beltzeko irudi bat koloreztatu

- Argazki baten tonu desberdinak lortu: sepia...

- Tutorial desberdinak ezagutu:

. Estilo desberdineko testua sortu: suaren itxura duten letrak, urrezkoak, kristalezkoak, izotza itxurakoak...

. Irudiak deformatu

. Pergaminoak egin

. Testura desberdinak sortu

. Eztanda bat sortu

. Tximista bat sortu

-Photoshopi buruz Interneten dauden hainbat helbide ezagutu (trukoak, efektuak, tutorialak, foroak...)



Irudien manipulazioa

Trikimailuak, bitxikeriak eta 3Dko irudiak sortzea ordenagailuaren bidez



Jose Manuel BELTRAN

GASTEIZKO ANTONIO LOPEZ DE DE GUEREÑU IP-KO
IRAKASLEA

Lehenengo saioan irudiekin muntaiak egingo ditugu, bai paperetan etai bai euskarri informatikoan erabiltzeko. Irudi manipulatuak ere egingo ditugu eskolako egunkarian, web orrian, paperezko txarteletan edo postal arruntetan kokatzeko.

Horretarako, Paint Shop Pro programak ematen dizkigun tresna sinpleez baliatuko gara argazki irudi batean nahi dugun elementua desagerrarazteko, kanpoko gehitzeko, deformatzeko eta abarretarako.

Erreminta paletatik erabiliko ditugun tresnak hauexek dira:

- Begizta: eskuz edo ertz zorrotza aukeratzeko irudiaren zatiak.

- Klonatzeko pintzela: irudiaren zatiak errepikatzeko edo "klonatzeko".

- Makil magikoa: kolore antzeko pi-

xelak aukeratzen ditu.

- Berrikutzeko tresna: bultzatu, desplazatu, argitu, erre, koloreztatu...

- Kapak lantzeko baliabideak.

Bigarren saioan edo egunean Animation Shop programaz baliatuz Gif bizi-dun berriak sortuko ditugu eta Interneten agertzen diren gif animatuak aztertu eta landu ere bai.

Marrazki edo argazki horietan neurriarekin jokatu dugu, bisaiak aldatu, testuak gehitu, mugimenduak eman... Eraldaketa horiek zientzia arloan oso erabilgarriak izan daitezke: higidura lantzeko, makinaren funtzionamendua adierazteko, bihotzaren mugimenduak ikusteko, mitosis prozesua aztertzeko... Hori dena irudi desberdinak gehituz egingo dugu.

Gif bizidunei hondo gardena emango diegu web orrietan edo irudi baten gainean kokatzeko.

Hiru dimentsioko irudiak lortuko ditugu bikote estereoskopikoarekin, efektu berezia lortzeko.

"Ascii generator" programarekin erretratuak ascii kodean jarriko ditugu, hizkiz egindakoak.

Hirugarren saioan dauden irudiak eta bideoak betaurreko bereziekin (bi koloretako betaurrekoak, gorria eta urdin berdeska) ikusiko ditugu eta haiekin gozatuko dugu. Mila irudi baino gehiago daude eskueran bilduman.

Material berria ere sortuko dugu. Bikote estereoskopikoez (ezkerreko eta eskuineko irudiak) baliatuz edo argazki makina digitala erabiliz, aplika-



zio batzuei esker hiru dimentsioko irudiak lortuko ditugu.

AnaBuilder, Anamaker eta Zanag programekin hiru dimentsioko irudi anaglifikoak izateratuko ditugu.

Horrez gain, bi dimentsioko irudiak hiru dimentsioko bihurtuko ditugu.

Euskal kartografia ere ikusiko dugu Er Viewer programaz baliatuz.

Avi artxiboak erabiliz, movi maker programari esker anaglifoak lortuko ditugu.

Interneten dauden helbideetan sartuko gara programa eta anaglifoan bila.

Amaiera emateko, denok edukiko dugu aukera egindako lanak ikusteko.



www.hikhasi.com

W e b a t a r i b e r r i t u a

k u r k u x e a t u


P r o j e k t u a k p a r i e k a t u

A r a k a t u

“klik”

“klik”

Euskal Herritik...



...Suomira

Finlandiako hezkuntza sistema eta eskolak ezagutzeko bidaia pedagogikoa

Bertako esperientzia ezagutu eta eredugarri egiten duten arrazoiak ezagutuko ditugu: udalen eta gurasoen parte-hartze zuzena, irakasleen prestakuntza eta prestigioa, eredu inklusiboa, ekitatea, talde txikiak, curriculum malgua...

* Urriak 31, Bilbo-Helsinki

* Azaroak 4, Helsinki-Bilbo

* Hiru hezkuntza zentrotara bisitak eta hitzaldiak

* Matrikula eta informazioa:

www.hikhasi.com



hh
hik hasi

Blogak irakaskuntzan



Jokin LACALLE

JAKINTZA IKASTOLAKO IKT DINAMIZATZAILEA



Mikel ETXARRI

JAKINTZA IKASTOLAKO WEBMASTERRA

Aspaldi honetan Web 2.0 izenpean Interneten gertatzen ari diren aldaketan berri jasotzen ari gara hedabideetan. Kontzeptu honen definizioa ikuspegi askotatik enfoka daitekeen arren, ikastaro honetan irakaskuntzari begira Web 2.0 delakoak lekarkeenaren inguruko azterketa egingo dugu, mugimendu berri honen buruan blogak kokatuko genituzkeelarik.

Zalantzarik gabe, 2005. urtea blogen iraultzaren urtea izan da. Blogarien hazkundera izugarria izan da, une honetan 40 milioi blog baino gehiago aurki daitezkeelarik. Horren ondorioz, sarean zehar aurki daitekeen informazioa inoiz baino ugariagoa da eta inoiz baino sakabanatuago dago. Garai bateko atari tematiko edo direktorio erraldoi haietatik (informazio guztia erabat zentralizatuta aurkezten zuten webgunek) mikroinformazioa nagusi den Internetera pasa gara. Informazioaren sakabanatze horren ondorioz, behar be-

zala kudeatu nahi badugu, ohikoak ez diren tresna berriak erabiltzera behartuta gaude: horien artean RSS gehigarriak, informazioa etiketatzeko sistemak, gogokoak partekatzeko aukerak... Hori izango da, beraz, ikastaroaren lehen atala.

Sarean zehar topa daitezkeen blogen izaera anitza izanik, hauetako asko helburu didaktikoekin sortu dira. Hauek dira, hain zuzen ere, edublog izenez ezagutzen direnak. Egia esan, ez dira gutxi blogak irakaskuntzan erabiltzeko egon daitezkeen arrazoiak:

- 1) Erabilterrazak dira.
- 2) Multimediaiak dira, alegia, testua, irudiak, animazioak, ahotsa eta bideoa biltzeko euskarria eskaintzen dute.
- 3) Ikaslearen partaidetza bultzatzen dute: tresna eraginkorrak dira metodologia eraikitzaile baten barnean.
- 4) Gure egunerokoan erabiltzen ditugun beste hainbat baliabideekin konbinatuz, aurretik finkatutako helburu

didaktikoak lortzeko oso baliagarriak dira.

5) Blogak eta horien inguruan erabili daitezkeen aplikazio guztiak doakoak dira.

Blogaz gain, Web 2.0 berri honetan badira beste hainbat tresna hezkuntzan erabilgarritasun aparta eduki dezaketenak. Horietako gehienak lankidetzan oinarritutakoak dira, informazioaren trataera era partekatuan gauzatzeko balio dutenak. Hor daude wikiak, Writely edota View bezalako aplikazioak. Horiek guztiek, taldeko lanean oinarrituta, ekoizpen mota askotarikoak lantzeko aukera aparta eskaintzen digute. Horretaz gain, ikasleen artean ikuspuntu demokratikoagoa zabaltzea ahalbidetzen digu.



Blogak erabilte-
rrazak dira,
ikasleen partai-
detza bultzatzen
dute, beste
baliabideekin
konbina daitez-
ke eta doakoak
dira.



Wikiak eta webquestak



Maite GOÑI

ORDIZIAKO JAKINTZA IKASTOLAKO
IKT TALDEKO PARTAIDEA ETA
EUSKALJAKINTZA EGITASMOAREN ARDURADUNA

Azkenaldian, *Internet berriaz* edo *web 2.0* delakoaz nonahi entzun dezakegu. Askok hitz egin da, halaber, irakaskuntzak Internetera hurbiltzeko eta berri ulertzeko modu berri horri aterra dakizkiokeen onurez. Baina irakasleok ez al dugu askotan trena hartu orduko, berriz ere ihesi egiten digulako irudipena? Ez al dugu pentsatzen maiz, zerbait ikasi orduko, beste zerbait berriagoa aterako dela eta berriz ere atzean gelditzeko arrisku bizian gaudela? Bada, sinemen faltsua ere *bada* hori, neurri handi batean. Gaur egun topa ditzakegun tresna horietako asko teknikoki oso antzekoak dira, eta behin horietako bat menperatuta, errazagoa egiten zaigu hurrengoari heltzea. Izan ere, sarean gure eskura dauden tresna horietako asko eta asko teknikoki oso antzekoak izateaz gain, oso errazak ere badira. Ez hori bakarrik, ikasleen partaidetza, autonomia eta elkarreragina modu erakargarrian eta dohainik sustatzen dute eta, irakasleoi dagokigunez, jarduerak multimedia baliabideak erabiliz disei-

natzen laguntzen digute. Bestalde, ikasleen motibazioa pizteko ere lagun-garri gerta dakizkiguke baliabide horiek guztiak. Aipatu dugun legez, multimedia baliabideez horni daitezkeenez, ikasleen arreta eta jakin-mina pizten lagun diezaguketelako.

Gauzak horrela, ikastaro honen helburu nagusia sareak eskaintzen dizkigun erreminta horietatik bi sakonki eta praktikoki ezagutzea izango da: **wikiak** eta **webquestak**.

Wikiak ezaugarri bereziko webguneak dira. Gune horietan hainbat erabiltzailek orrialdeak sor, edita, ezaba eta eralda ditzakete, aldi berean zein une desberdinetan arituz. Aipatutako izaera berezi horrek, batik bat, lankidetzan aritzeko eta elkarlanean idazteko tresna ezin hobe bihurtzen ditu. Prozesu osoan zehar egindako aldaketa guztiak gordeta gelditzen dira eta nork eta noiz egin dituen ere ikus daiteke. Wikipedia da wiki baten adibiderik ezagunena.


Webquestak ikerketara zuzenduriko jarduerak prestatzeko diseinatutako webguneak dira. Erabiltzen eta kudeatzen den informazio guztia edo ia guztia saretik dator eta, konstruktibismoaren ildotik, ikasleak analizatu, sintetizatu eta ebaluatzera bultzatzen ditu, besteak beste. Irakasleek diseinaturiko jarduera horrek ikasleak aktiboki parte hartzea du helburu, baita ikaskuntza kolaboratiboa nahiz denborari etekin handiagoa ateratzea ahalbidetzea ere. Ikasleak ordenagailu aurrean, nora ezean, informazio bila jartzea ohikoa izaten da, bilaketaren prozesuari denbora gehiago eskainiz, informazioaren tratamenduari eta eraldatzeari baino. Bada, ondo egituraturako webquest bat azken horren atzetik joango da. Webquestek hainbat atal dituzte, eta atal bakoitzak jardueraren helburua, nondik norakoa eta balorazioa argi zehazteko aukera ematen du, irakaslearen hausnarketa sakona eskatuz: ikasleak lanean jarri aurretik, alde batetik; eta, bestetik, ikasleari jarraibide zehatz



eta argiak emanez.

Wikiak eta Webquestak zertarako erabil daitezkeen aztertuko dugu, mar-txan dauden esperientziak ezagutuko ditugu, adibide ugari ikusiko ditugu eta, batez ere, tresna horiek sortzen, kudeatzen eta multimedia baliabideez aberasten ikasiko dugu. Ikastaroaren amaierarako partaide guztiek sortua izango dute webquest eta wiki bana, eta horietan irudiak, audioak eta bideoak txertatuko dituzte.

Ikastaroaren helburua wikiak eta webquestak sortzen eta kudeatzen ikastea izanik, beronen izaera, batik bat, praktikoa izango da, nahiz eta erreminta horien oinarri pedagogikoak ere aipatu eta azalduko diren.



Editatzen ikasteko, pinnacle programaren bidez



**Pelai EIZAGIRRE
DE GARATE**

PADEko ERREALIZADOREA ETA GERENTEA

Beste osagaiekin batera, bideo digitala material didaktiko bezala erabil daiteke. Horretarako, ordea, azken teknologiak eta erabilpenak ezagutu behar dira, eta hori da ikastaro honetan landuko dena. Bideo digitalaren edizioa eta DVDa nola egiten diren irakatsiko da.

Horretarako, edizio digitala egiteko behar diren bitartekoak erabiltzen irakatsiko da; bereziki Studio programa eta horren osagarriak.

Studioren bitartezko Edizio Digital Ez Linealak nahasketa mahai tradizionala ediziorako sistema digital baten bidez konektatutako bi bideorekin ordezkatzeko ahalbidetzen du. Aldi bere-

an, post-produkzio on baterako behar den guztia eskaintzen du: trantsizioak, filtroak eta abar.

Edizio Digital Ez Linealak, hots, editatzeak edo Studiorekin lan egiteak zera dakar: lehenengo eta behin, bideoak, argazkiak, audioak, animazioak eta abar lortzea. Bigarren urratsean elementu horiei guztiei forma emango zaie editaiaren bitartez. Kontuan hartu behar dugu zenbait elementuri trataera berezia eman beharko zaiela: formatu aldaketa, filtroak, ukituak... Azkenik, behin elementu guztiak nahastutakotan, esportatu egingo ditugu; beste modu batera esanda, nahi dugun sistema-teratara aterako ditugu: DVD zintara edo avi

artxibora gero aurkezpen multimedia batean sartzeko.

Azken emaitza edizioan jartzen den interesaren eta ahaleginaren arabera, izango da. Studio programa zabala da, beste "plug-ins" batzuetara irekia dago. Modu horretan, "plug-in" egokia aurkituz gero, bertsio estandarrean irudikaezinak diren gauzak egin daitezke.

Studio lehen zatia da gogorrena; hots, lanerako kriterio teknikoak ezartzea. Baina, jakin beharra dago. Gainerakoa, nahasi samarra izan litekeen arren, dibertsigarria, ulertterraza eta praktikoa da: trantsizioak egitea, planoak kentzea, filtroak ezartzea, espazioak animatzea...



Edukiak

Ikastaroan landuko diren edukiak hauek izango dira:

- Proiektuak sortzea:
 - * Proiektu berria ireki
 - * Proiektu baten osagaiak
 - * Proiektuaren egitura
 - * Proiektua gorde

- Bideoarekin irudiak hartzea:
 - * Bideoaren atzemate txartelak
 - * Hardware eta softwarearen bidezko ulertzea
 - * Atzemate iturriak zehaztea
 - * Atzemandako bideoa gordezea

- Bideo kanalak:
 - * Bideoaren stream sartzeko kanalaletan
 - * Irudi finkoak sartzeko

- Bideoaren editaia eta muntaia:
 - * Editatzeko erremintaren erabilpena
 - * Mozketa
 - * Lekuz aldatzea
 - * Denbora doitzea
 - * Desegitea

- Flitroen erabilpena
- Gardenkien erabilpena
- Bideo animazioa
- Soinu kanalak
- Izenburuak
- Proiektuak esportatzea
- Bideo formatuak:
 - * Formatu motak
 - * Bideo euskarriak
 - * CDtik DVDra



Ordenagailua musikan

Ordenagailuaren erabilera musika gelan



Xabier ZABALA

MUSIKARIA, KONPOSITOREA ETA MOLDATZAILEA

Egun, bizi garen egoera aztertuta, esan genezake ordenagailua gero eta tresna beharrezkoagoa dugula eguneroko lanean; eta, ez badugu erabiltzen, ziur egon guretzat egokia izan daitekeen programarik aurkitu ez dugulako dela.

Ikastaro honetan hainbat gauza jorratuko ditugu, baina, batez ere, informatika musikalak eskaintzen dizkigun aukerak aztertuko ditugu, norberak bere beharren arabera nahi duen programa erabiltzeko.

Horretarako, erabat desberdinak diren programa musikalak jorratuko ditugu, eta nahiz eta beste batzuk aztertu ez, beraien aukerak ezagutuko ditugu.

Belaunaldi berriari ordenagailu hi-

tzak ez dio inongo beldurrik ematen, beti ezagutu izan duen tresna delako; baina guretzat beste zentzu bat hartzen du. Horrek ez du esan nahi ezinezkoa zaigunik mundu horretan sartzea; alderantziz, bakoitzak ikusi behar du noraino eta zenbaterainoko laguntza eman diezaiokeen ordenagailuak. Garbi izan ordenagailua guri laguntzeko tresna dela, eta hori kontuan hartuz, asko edo gutxi erabiltzea gure eskuetan egongo da.

Erabiliko dugun lehenengo programa dance machine izango da. Multimedia den programa honek oso erabilera erraza du. Musika techno-dance egitea posible da software honekin. Egiten ditugun abestiak CD batean sartuko ditugu, nork bere etxean lasai asko entzute-

ko. Ezaugarri bezala, esan dezakegu bat-bateko emaitza “ikusgarria” ematen duen programa dela, ikasleekin erabiltzeko oso aproposa, alegia.

Encore izango dugu gure bigarren programa. Partiturak editatzeko eta, era berean, sekuenziatzaile midi moduan gure grabazioak egiteko balioko digu. Partitura mota errazekin hasita, pixkanaka konplexuagoak jorratuko ditugu. Editore honekin hainbat gauza egingo ditugu eta gure eguneroko lanerako oso baliagarria izango da.

Oso programa intuitiboa da; horregatik izango da, agian, hain erraza erabiltzeko. Baita ere, komenigarria da esatea, Lehen zein Bigarren Hezkuntzan programa hau lantzeko aukera izan dezaketela ikasleek, oso interes-



Ordenagailua guri laguntze- ko tresna denez, nola erabili jakin behar dugu.

garria izan daitekeelako beraientzat.

Internet mundua baliogarria da ar-
lo guztietan eta, noski, bereziki musi-
kan. Hori da guk jorratuko duguna.
Izugarrizko atea dugu gure aurrean;
ireki eta barruan duguna ikusi besterik
ez dugu egin behar: informazio kopu-
rue oso handia da eta eskolan prakti-
kan jarri nahi duguna garbi badugu, in-
formazio hori aztertu, jorratu eta mar-
txan jartzea posible dugu.

Midiak, musika informazio gisa, bi-
latu eta aurkituko ditugu. Horiek izan-

go dira gure informazio iturririk garran-
tzitsuenak: partiturak aterako ditugu,
“play-back”-ak landuko ditugu jaial-
diak egiteko eta, aldi berean, karaoke-
ak bilatuko ditugu gauza bera egiteko.

Hori guztia kontuan hartuz, mundu
interesgarri baten aurrean gaudela esan
dezakegu. Ordenagailua tresna bat de-
nez, nola erabili behar dugun jakitea
soilik falta zaigu; bakoitzaren beharrak
aztertu eta horientzat irtenbide bat du-
gula jakin behar dugu.

Beraz, animo.



Musikaterapia

Musikadunak, musikazaleak eta musikagileak garenontzat



Aitor ZENARRUZABEITIA

MUSIKA IRAKASLEA, LOGOPEDA, MUSIKOTERAPEUTA,
PSIKOMOTRIZISTA ETA PSIKOPEDAGOGOA

Pilulak baino CD sendagari bat erostean ote datza kontu hau? Edo agian elkarrekin soinu egiterakoan sortzen den erresonantzia emozionala ote dugu botika berria? Erantzuna, maisu-andereño, musikari edo azken melodia eranskoraren txistuzale sutsu hori, erantzuna –Bob Dylan-ek zioskunez-haizeak daroa.

Baina haizeen orraziatik ez oso urrun, ikastaro praktiko honetan, hain zuzen ere, abagune aparta izango duzue gure soinuak komunikatu egiten duela konturatzeko: ea, jakingo al zenuke zure giltzak soinuak soilik begiak itxita eza gutzen? Eta atea nola itxi duen eta bere urratsen arabera, nor sartu berri den etxean? Era berean, soinu-giro hutsez antzemango al zenituzke lekuak, egoe-

rak, pertsonak...?

Musikoterapiak dioskunez, hizkuntza emozionala dugu musika, hots, gure psikismoaren partitura.

Eta partituraz ari garelarik, honatx ikastaroaren gps-a:

Bat-batekotasuna landuz

- Sormen soinu magmak: aulkiz, kaxe, eztarriz, musika tresnez...

- Sormen oihartzunak.

- Sormen melodiak: plakaz eta kani-kaz, txirulaz, txistuz...

Entzumena landuz

- Entzumen kinetikoak: tai-txia, tangoa, baltsa, rocka...

- Entzumen tonikoak: besarkaterapia, masaje musikalak...

- Entzumen bibroakustikoa: giza txalaparta, dutxa fonikoak, akorde besarkadak...

- Entzumen akustikoa: hots paisaiak, bidaia musikalak, bereizketa tinbriko eta tonalak...

Erritmoa landuz

- Gorputz perkusioa: matematika polirritmikoa, desfaseak, elipsiak...

- Zapatarritmia mayumana.

- Mahairritmiatik danborretara.

Ahotsa landuz

- Arnasketa-proiekzio teknikak.

- Fonazio-entonazio teknikak.

- Jolas prosodikoak: izen amildegia, puxikaz...



Partitura landuz

- Drama partiturak: filmetako soinu bandak.
- Ikono partiturak: somatogramak, collagefoniak.
- Notazio partiturak: ostinatoak mekano eran, erritmogramak mila tinbrez.
- Pentagrama lurrean, horman, velcroz eta velledan.
- Melodia eta harmonia Boomhackerstutuz.

Haizeen orraziatik ez oso urrun, ikastaro praktiko honetan abagune aparta izango dugu gure soinuak komunikatu egiten duela konturatzeko.



Dantzaterapia

Mugimendua espresio bide eta norberaren ezagutza gisa



Amaia OTAMENDI

DANTZARIA, TERAPEUTA ETA DANTZA IRAKASLEA



Jordi RAMON

AKTOREA, DANTZARIA ETA DANTZA IRAKASLEA

Nola sentitzen naiz? Zein dira nire beharrak? Galdera horiek dira abiapuntu dantzaterapiako sesio batean. Nire benetako erantzunak bihurtuko dira nire konpromiso. Era berean, erantzun horiek izango dira jakinduria eta elkar-tze bidearen hasiera.

Gorputzean bizitzen hasiko naiz. Inguruarekin erlazonatzen nauen azala esnatuko dut, pixkanaka. Nire etxean nagoenaren kontzientzia hartuko dut, nire gorputza nire etxea denarena, eta beraz, beharrezko izango zaizkit bere zoko guztien ezagutza. Arnastu, hasperendu, hauteman, onartu.

Dantzaterapia jarduera terapeutikoa da eta inoiz ezingo da banako tera-

pia gisa hartua izan. Terapeutikoa da nire barne-espazioarekin bat egiten dudalako, nire barne ezagutza ahalbidetzen duelako, tentsioak askatzen dizkidalako, nire sormena bultzatzen duela eta nire emozio eta bizitzako beharretan murgilarazten nauelako. Horretaz guztiaz gain, nire dantzatzeko era, nire mugitzeko era eta komunikatzeko aurkitzen dudalako ere gozagarria da. Hori guztia nire buru-gorputz-ari-mak hala behartzen ditulako gertatzen da. Hobeto sentiarazteko eta osoago sentiarazteko zubi ere bada.

Azpmarragarria den beste alde bat jolasaren eta inguratzen gaituenarekiko jakin-minaren berraurkikuntza da.

Hainbat jolas eta dinamiken bidez, haurtzaroko bizipenak zehazten joango naiz, zentzuak irekiko zaizkit, pertzeptzioak aldatuz joango zaizkit eta ezer ez zela uste nuen bezain estatikoa ohartuko naiz. Mugimendua bibrazio hutsa da, egunerokotasunean present egoteko era bat. Horrela lortuko dut etengabeko aldeketen aurrean behar dudan malgutasuna.

Jarduera terapeutiko hau bizitza osoan zehar mantentzeko daiteke. Izan ere, nire bizitza prozesuko une bakoitzean nire dantzatzeko era, espresatzeko eta mugitzeko eraldatzen baitoa. Adibide bat jartzearen, zorientasunak blaitzen nauenean nire dantza arinagoa eta sal-



tarinagoa izango da; aitzitik, amorruz beterik nagoenean, gogorragoa izan naiteke. Bakoitzak bere bidean espresatzeko (presionatzen gaituena kanporatzea) era aurkituko du norbere egoera mental, emozional eta fisikoa.

Dantzaterapiako tailer batean ahozko espresioak ere berezko tokia du. Hitzaren bidez barnebiltzen baitituz gorputz, buru eta arimaren bizipenak. Eta, neurri berean, hitzaren bidez igaroko dugu kontzientziara saioan bizi

izandakoa. Berebiziko garrantzia du saioan zehar bizi izan ditugun ideia eta bizipenak ordenatzeak prozesu horretan aurrerapausoak emateko.

Finean, dantzaterapiaren jarduera bizitzaren espresioa sentitu nahi duen guztiarentzat da egokia. Gure baitan daukagun potentzialitate guztiaz jabetzeko tokia da. **Izateko** eta une bakoi-tzean gertatzen zaiguna onartzeko gunea izango da.



Idazketaren didaktika



Irune IBARRA

**EHUko FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIETAKO
DIDAKTIKA SAILA
GRAFOLOGOA ETA UEUko KIDEA**

Idazkeraren¹ jabetza nola koka edo planteia daiteke piagetar/vigotskiar konstruktibismoaren ikuspegian eta idazketa metodoen ikuspegian?

Piagetar/vigotskiar konstruktibismoetik planteatutako hizkuntza idatzia lantzeko proposamenak eta irakurketa-idazketa metodoen ikuspegia elkarren kontrako ikuspuntutzat hartu izan dira.

Piagetar/vigotskiar konstruktibismoetik planteatutako hizkuntza idatzia lantzeko proposamenetan, idazkera, haurrak 7/8 urte dituenetik aurrera, umezurtz gelditzen da. Hau da, konstruktibismoak idazkera alfabetikora arteko eraikuntzaren deskribapena egin izan du eta estrategia didaktikoak ba-

daude, baina idazkera alfabetikotik aurrerako ikerketak eta estrategia didaktikoak urriak eta lausoak dira (hitzen tarreak barneratzeko, letren loturak erakitzeke...).

Bestalde, esanahiaren alde eraikitzaileei soilik erreparatu diete, eta idazkeraren alde figuratiboaren eraikuntza (alde teknikoa, mekanikoa, periferikoa, formala, scriptio, kaligrafia...) airean gelditu da. Egile batzuek kontuan hartzen duten arren, proposamen zehatzik ez dut aurkitu. Teberosky-k² dio (1993):

(...) Garrantzitsua iruditzen zaigu hizkuntzaren ikasketa ikuspegi konstruktibotik planteatzea, baina alderdi figuratiboa abaztu gabe. Eskolatzearen basieran funtsezkoa da haurrek hizkuntza idatzia ikertzeko espazioa edukitzea (hizkuntza idatzia gebi idazkera sistema—edo idazkera—). Poliki-poliki modu konbentzionalean idatziz joango dira, hau da, modu alfabetikoan. Modu alfabetikoan idaztera iristen direnean, orduan hasi behar dugu, gure ikuspegiaren arabera, alderdi figuratiboei garrantzia ematen

¹ Idazkera, idazkera sistemaz arituko gara.

² TEBEROSKY, A.: *Aprendiendo a escribir*, Ixe/Horsori, Bartzelona, 1992.



(ortografia, hitzen banaketa, grafia...).

Idazketa metodoekiko ikuspuntu zabalago batean kokatu behar direla iruditzen zait, ez soilik kodearen, idazkeraren jabetzan. Hizkuntza idatziaren barruan, «akatsak» prozesu baten barruan ulertuz, mailakatzearen eta automatizatzearen filosofiarekin, baina fitxak «egin egiteagatik» horretan erori gabe.

Konstruktibismoaren ildoari jarraitu edo idazketa metodoen filosofiari jarraitu, idazkerak plano, osagai... zenbait dituela eta horiek progresio, sistematizazio batean (ez denak aldi berean eta bi ikasturtetan) jorratu behar direla argi edukitzea erabakigarria iruditzen zait idazkera txukun eta arinak edukitzeko.

Ikastaro honetan konstruktibismoa eta idazkera metodoetan idazkera kokatu ondoren, Haur eta Lehen Hezkuntzan zehar idazkera lanketaz arituko gara, bereziki lehen zikloan sakonduz. 1 eta 2. mailan idazkeraren plano desberdinak nola landu aztertuko dugu: hitzak bereizteko, letra larrietatik txikiararako urratsa emateko, letren arteko lotura gidatzeko... estrategia didaktikoak landuko dira. Hezitzaileak argi baldin badauka zein plano lantzen dabilen, ikasleari ere argi eskatuko dio zeri erreparatu idatzi behar duen. Esate baterako, idazlan bat sortzen baldin badabilta, «tatxoiak» normalak dira; esanahia eraikitzen baldin badabilta, hitzen tartekak banandu gabe egotea itxarroteko modukoa da; letren arteko lotura bat-batean lortzea ia ezinezkoa da... etab.

Ikastaro honetan konstruktibismoa eta idazkera metodoetan idazkera kokatu ondoren, Haur eta Lehen Hezkuntzan zehar idazkera lanketaz arituko gara, bereziki lehen zikloan sakonduz.



Nola irakatsi ongi idazten

Idazketaren faseak eta aldagaiak



Mikel HARANBURU

EHUko IRAKASLEA



Iñaki APALATEGI

BERTSOLARIA

Lehenik, idazketa prozesuaren *faseak* aztertuko ditugu: 1) Plangintza: zer, norentzat eta nola idatzi; 2) Sintaxia: gramatikazko arauak jarraituz mezu idatzi; 3) Lexikoa: esaldietan erabilerikoa diren hitzak aukeratu; 4) Mugimendua: alografoak berreskuratu eta idatzi.

Ondoren, idazketa prozesuan esku hartzen duten aldagaiak aztertuko ditugu: hautematea, oroimena, motibazioa, afektibitatea, gorputz eskema, lateralitatea, psikomotritate, grafomotritate, familiako giroa, eskolako giroa.

Idazketa prozesua aztertze-ko ikuspegiak

Idazketa prozesua hiru ikuspegitik aztertuko da:

- *Ikuspegi normatiboak* idazteko jarraitu beharreko arauari ematen die lehenetsua. Idazketaren alderdi figuratiboak zaintzen ditu bereziki: letren forma, formen banaketa, orientazio espaziala... Idazten ikasteko ezinbesteko baldintzat hartu izan du ondoko alderdi hauen heldutasuna: adimena, hautematea, psikomotritate, antolamendu espazio-tenporala, ahozko hiz-

kuntza, kontzientzia fonologikoa, garapen operatorioa.

- *Ikuspegi eraikitzaileak* idazketaren alderdi espresiboak eta sortzaileak azpimarratzen ditu, esanahiari begiratzeko dio, eta idazketaren alderdi figuratiboak bigarren mailan uzten ditu. Ikuspegi honen arabera, idazten ikasteko haurrak zein etapa igarotzen dituen aztertuko dugu. Idazketaren ikaskuntza-prozesuaren garapen indibidualarekin batera, idazketa sistemen garapen historikoa ere aztertuko da: idazketa logografikoak, silabikoak eta alfabetikoak.

- *Ikuspegi eraikitzailea* eta ikuspegi



Idazketaren faseak eta aldagaiak ikusteaz gain, disgrafia ere landuko dugu.

normatiboa uztartuko dituen *idazketa-eredu konbinatuaren* bereizgarriak aztertuko dira ondoren:

- Mezuaren plangintza: mezuaren ideiak sortu, antolatu eta berrikusi.
- Prozesu sintaktikoak: esaldiaren egitura eraiki eta hitz funtzionalak kokatu.
- Prozesu lexikoak: bide fonologikotik nahiz ortografikotik grafemak eskuratu.
- Mugimen prozesuak: alografoak berreskuratu, eta hitzak idazteko beharrezkoak diren mugimendu ereduak ere bai.
- Aukeratutako hitza batasun handiagoetan integratu. Idatzitakoa gainbegiratu eta ebaluatu.

Disgrafia motak

Disgrafia definitu eta *disgrafia motak* bereiziko dira:

- Plangintza, sintaxi, lexiko eta mugimendu mailakoak.
- Organikoak eta funtzionalak
- Sinbolizaziokoak eta kaligrafikoak.
- Ebolutiboak eta eskuratuak.
- Zentralak (azalekoa edo lexikoa, fonologikoa, sakona, semantikoa) eta periferikoak.

Disgrafiaren etiologia

Disgrafiaren sorreran eragina eduki dezaketen aldagaiak aztertuko dira: faktore genetikoak, garuneko lesioak, lateralitasun arazoak, nortasun eta afektibitate arazoak, eskolako orientazio kaxkarra, heldutasun neuropsikologikoaren arazoak, gabezia psikomotorrak, jarrera fisiko desegokiak, gorputz eskemaren nahasteak, hautemate eta mugikortasun arazoak.

Disgrafiaren ebaluazioa

Plangintzaren, egituraketa sintaktikoaren, lexikoa eskuratzeko bide lexiko eta fonologikoaren eta mugimendu moduluaren ebaluaziorako froga estandarizatu eta estandarizatu gabeak aurkeztuko dira

Prebentzio eta tratamendurako programak

Amaitzeko, idazketa arazoaren prebentzio eta tratamendurako programak agertuko ditugu. Irakasleak zer eta nola landu behar duen, zer eta nola zuzendu behar duen aztertuko dugu. Toki berezia izango dute Elgoibarko Herri Eskolan aplikatu den Kontzientzia Fonologikoa lantzeko programak eta programa horren barnean integratu ditugun bertso ariketak.



Antzerkia



Joserra FACHADO

AKTOREA ETA IRAKASLEA



Mikel SARRIEGI

AKTOREA ETA IRAKASLEA

Hezkuntza prozesuan antzerkiak izan dezaken garrantzia handia da eta lantzen den tokian hala egiaztatzen dute. Gure ustez, hain baliagarria den bitartekoa ez da ia erabiltzen. Horren ga-beziak hezkuntza aukera handiak galtzen dituela esatera garamatza.

Irizpide teorikoa izango al da gurea?

Galdera horren erantzuna ezezkoa dela deritzogu, praktikan urte dezentean frogatzeko bidea izan baitugu. Biok urte asko daramatzagu adin desberdineko haur eta gazteekin antzerkia lantzen eta garbi esan dezakegu hizkuntza lantzeko, espresioa garatzeko, harremanetarako, jendearen aurrean aritzeko, barruko beharrak eta indarrak kanporatzeko, norberaren psikoa askatzeko eta abar luzerako baliagarria dela.

Eskainiko dugun ikastarorako honako helburu hauek jarri ditugu:

- Irakaskuntzako maila desberdinetan zer antzerki mota egin beharko litzatekeen ezagutzea.

- Oinarrizko antzezlanak eta materialak ezagutzea bakoitzak bere ikasleekin egiteko.

- Pertsonaien sormenetik abiatuz antzerkiko oinarrizko teknikak ikastea. Ikasleekin erabiltzeko joko eta teknika askotarikoak ezagutzea.

- Pertsonaiak sortu eta testuekin jolastuko dugu, gerobakoitzak bere ikasleekin lantzeko.

Helburu horiek lortzen laguntzeko hainbat teknika eta material erabiliko ditugu. Ikastaroa zeharo praktikoa izango denez, ikasleekin guk erabiltzen ditugun testuak, bitartekoak eta

abar eskainiko ditugu. Taldekideek eskatuko dituzten beharrei erantzuten ahaleginduko gara. Horretarako, taldea txikia izateak eta bi irakasle aritzeak aukera eskaintzen du modu pertsonalizatuagoan aritzeko. Dena den, landuko ditugun eduki orokorragoak hauek izango dira besteen artean:

- Hainbat testuren lanketa.

- Antzerki teknikak ezagutu eta adin bakoitzean zeregitzea komenikolitzatekeen ezagutu.

- Testuetan oinarritutako antzezlan txikiak egin.

- Inprobisazioetan oinarritutako antzezlan motzak gauzatu.

- Parte-hartzaileek ezagutzeko interesa duten teknikak landu (klown...).

Antzerkia lantzen Lehen hezkuntzako ikasleekin hasten bada ere, irakasleentzat egokia izan daiteke edo-



Antzerkia gutxi erabiltzen da hezkuntzan eta bitarteko oso baliagarria da.



zein adinetako haurrekin lanean arituta. Irakasleek haurren aurrean antzertu dezakete eta antzerkiaren mundua ezagutzeko lagungarria izango da ikasleentzat.

Hori guztia kontuan hartuz, honako metodologia hau proposatzen dugu:

- Ikastaroa guztiz praktikoa izango da.

- Gorputza berotzeko eta esnatzeko hainbat ariketa egingo dira; espazioarekin eta lagunekin harremanetan jartzeko jokoak; pilotarekin, espazioan ibiltzen, imitazioak, ahotsaren lanketa eta abar.

- Teknika atalean, berriz, animalietatik pertsonailetara iristeko ariketak, emozioen ariketak (barrea, beldurra, naturako elementuak eta antzezteko behar den energia aurkitzeko ariketak landuko dira).


Amaitzeko, gure esperientzia ikastaroan parte hartuko dutenen eskura jartzeko guztiz irekiak gaudela esan besterik ez.

Ea antzerki orduei probetxu ona ateratzen diogun denok.

Goatzera goaz!



Haurrentzako masajea



Ramon MAUDUIT

PSIKOLOGOA ETA PREBENTZIOAN ADITUA

Haurra inguratzen duen giroak erabateko eragina izango du haren garunaren garapenean.

Gaur egun badakigu, jakin ere, jaioberria ez dela izaki pasiboa, eta haurren gaitasunak lo egitearen eta jatearen mugak gainditzen dituela. Jaiotza-untetik beretik, baita lehenagotik ere, susmatu ezin diren gaitasunak erakusten ditu.

Jaioberriaren larruazal-sentimena ez-ohikoa da. Heldu batek jasotzen dituen sentazioak jaso ditzake, eta hotz-beroak, goxotasuna eta gogortasuna, leuntasuna eta laztasuna, itsaskorra eta irristakorra, denak bereiz ditzake, baita presioaren xamurtasuna ere.

Haur baten ukimen-sentazioaren suspergarririk hoberena larruazalaz elkarukitzea da. Amak haurra, bere bularraren kontra jarrita, laztantzen duenean, berehala etorriko zaio haurrari la-saitasuna.

Haur bat laztandu, edo masajea emango badiogu, eskuaren presioak zenbatekoa izan behar duen ikasi behar dugu. Laztan eztegiek jaioberria asper dezakete. Haurrek laztan leun baina energetikoak nahiago dituzte.

Reich-ek elkarrekiko mendekotasunaz dioenaren arabera, haurrak lehenengo masajeak umetokiaren barnean bertan jasotzen ditu; ukitzaila, aldi berean, ukitua da.

Ukimena da garatzen den lehenengo zentzumena (Ashley Montabu), eta, halaber, komunikazio bitarteko nagusia haurrentzat. Haur guztiek sumatzen dute ukituak eta mugituak izateko modua. Haurrak sentazio fisikoa lortzeko, gurasoek beharrezkoa den denbora hartzea beren seme-alaba ezagutzeko modurik agerikoena da. Helduekin gertatzen den bezalaxe, pentsatzen eta sentitzen dugunaren zati handi bat gure eskuen bitartez adierazten dugu.

Konfiantza eta segurtasuna modu irmo baina lasai batez helduz eta ukituz adierazten ditugu; aitzitik, segurtasunik eza eta antsietatea beso zurrunaz eta gogor helduz. Beren seme-alabekin ukimena garatzen eta kontaktu fisikoa lantzen duten gurasoek elkarrenganako aisetasuna sortzen dute hasieratik beretik, eta askoz ere zailtasun gutxiago dituzte ttipitxoa baretzen. Beti daude haurrarekin ukipenean eta horrek segurtasuna, konfiantza eta mendetasunik eza ematen dizkio haurrari, eta hori bere nortasunean eta besteekiko harremanean islatuko da.

Masajeak zirkulazio eta immunologia sistemak suspertzen ditu, eta, halaber, bihotz taupadei, arnasketari eta digestioari laguntzen die. Hautxoaren garapena suspertzen du eta, indartzen eta bere koordinazioa hobetzen doan neurrian, oreka ezin hobea ematen dio. Era berean, giharren elastikotasuna eta



erresistentzia areagotzen ditu, jardunean dagoenean, nahiz atsedenean dagoenean, erlaxatuta egoteko gaitasuna hobetuz.

Haurtxoari maiztasunez masajea emateak hura hobeto ezagutzeko, nola dagoen jakiteko, eta ezerosotasuna, mina nahiz tentsioa sorrarazi ohi dioten gorputz atalak ezagutzeko aukera emango digu.

Haurtxoa lau hankatan edo oinez hasten denerako, masajea ematen zer-txobait jakitea oso baliagarria izango zaigu haurtxoak hartuko dituen kolpeak eta ikarak modu azkar eta eraginkor batez arintzeko.

Nola egunez, hala gauetz, txupeteak, manta bero eta leunek, eta haurrak besarkatzen dituen jostailuek beren balioa dute; baina, egia esan, giza ukipen bero eta xamurraren, eta haurrak beharrezkoa duen konpainiaren ordezkotasunak dira.

Praktikarekin, zuen seme-alabekiko ukipen premiak asetzen lagunduko dizuen eginkizun intuitiboa bihurtuko da masajea. Gainera, haurraren osasunari eta garapen fisiko zein emozionalari onura asko ekarriko dizkie.

Haurrak bere inguruarekiko izango dituen trukatzeko guztiak harremanen muskulatura ildaskatuz oinarrituko dira, eta horren arabera, gizakiak bere kortikalidadea egituratzen du (Arnold Cessal).

Muskulatura ildaskatu horretan, garapen batekiko bilakaera historiko osoa erakusten duen gihar babesa sortzen da. Wilhem Reich-ek garapen ontogeniko hori kontuan hartu zuen. Guk autoerregulaziorako eman zituen jarrabideak aztertuko ditugu.

Familia-ekosistema, oinarritzko prebentzioa, gorputzaren eskema, eta

gorputz-kontrola aztertuko ditugu; hau da, psikomotrizitatearen oinarriak.

Ukitzea, sentitzea eta emaitza kokatzea landuko ditugu.

Ukitu + sentitu = Kokatu



Birziklatuz sortu



Amaia ZINKUNEGI

ARTE EDERRETAN LIZENTZIATUA



Ines GEREKA

BIOLOGIAN LIZENTZIATUA

“Birziklatu plastika eta ingurunea lotuz”.

Lehen Hezkuntzan, birziklatze zein plastika arloan hutsunea zegoela eta irakasleriaren formazio eskaerak bazედela ikusita, tailer hauen ideia sortu zen.

Argi dago bai etxeetan eta bai eskoletan zabor asko sortzen dugula, eta gure haurrei zabor bakoitza bere eduki-ontzira botatzeko edota horrenbeste zabor ez egiteko erratea soilik ez dela nahikoa. Baina zabor horiei beste erabilera bat ematen badiegu eta hainbat material zein teknikekin diseinu propio bat sortu, bi arlo hauek uztartuko ditugu: birziklatzea eta plastika.

Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleek beraien ikasleei modu praktikoan (hau da, plastikaren bitartez) bir-

ziklatzea zer den erakustea da gure proposamena. Beraz, ikastaroa erabat praktikoa izango da eta esperimentazioa izango da oinarria. Modu horretara, sortu ahala, materialen baliabide plastikoaz ohartuko gara eta hainbat teknika ikusiko ditugu.

Ikastaroaren edukiak honako hauek dira:

1.- Bolumena landu: egunkari paperarekin, komuneko paperaren kartoiarekin eta plastikozko poltsekin.

2.- Maskarak egin: kartoizko kaxa eta arropa zaharrek.

3.- Txotxongiloak eta pertsonaiak sortu: latak eta plastikozko ontzi desberdinekin.

4.- Objektuak (lanparak, mugikorrak, markoak eta abar): kartoia, ontziak eta traste zaharrak erabiliz.

Horrekin guztiarekin bete nahiko genituzkeen helburuak hauek izango lirateke:

* Haurtzarotik birziklatzea modu praktikoan landuz, inguruneaz gehiago jabetzea.

* Gaur egun bizi dugun “erosi eta bota” kultura kontsumitzaile honetaz hausnartzea.

* Botatzen ditugun objektuei erabilera berri bat emanez, bere balioaz ohartzea.

* Birziklatzean diseinu berriak landuz sormena zein trebetasuna sustatzea.

* Birziklatzean sortzen diren arazo tekniko zein estetikoak aurre eginez, plastika “kontzeptuan” sakontzea.

* Zabor artean, esperimentazioaren eta jolasen bidez irudimena lantzea.



**Birziklatzea eta
plastika arloak
lotzea posible
dela ikusiko
dugu.**



Autismoa

Ikuspegi praktikotik



Jara LARREATEGI

GAUTENAKO TALDE KLINIKOKO PSIKOLOGOA



Inge LAZKOZ

GAUTENAKO TALDE KLINIKOKO PSIKOLOGOA



Jesus GARCIA

GAUTENAKO TALDE KLINIKOKO PSIKOLOGOA

Autismoaren lehenengo deskribapena Leo Kannerrek egin zuen 1943an. Geroztik, kontzeptuaren ezagutza hedatu egin da, bai komunitate zientifikokan eta baita gizartean ere. Horren erakusle da kontzeptuak sortu duen informazio eskaria (Interneteko bilatzaile garrantzitsuenetako batean gehien bilatutako hitza izan da). Atzean, pixkanaka gero eta nabarmenago ageri zaigun errealitate bat dago: lagin zorrotzekin egindako azkeneko ikerketen arabera, prebalentzia 150 biztanleko 1eko da. Hedapen izaera duten argitalpen ugari, errealitate horri erreferentzia eginez egiten diren prentsa oharrek eta izaera oso desberdina duten ustezko sendabideek ere hori egiaztatzen

dute.

Ikastaro honetan autismoaren ikuspegi praktikoa eskaini nahi dugu; psikopatologia horren gaur egungo kontzeptzioaren ardatz diren oinarri teorikoei erreferentzia eginez eta komunitate zientifikotik lortu diren adostasunetan oinarrituta: diagnostiko eta tratamendurako praktika egokien gida azaldu, nazioartean eraginkorrak direla frogatu diren esku-hartze programak, eragin sozialaren azterketa (bai familien ikuspegitik bai estamentu instituzionalen ikuspegitik), erantzun koordinatua aztertuz eta pertsona horien bizitzetan planteatzen den behar multzoari erantzuteko asmoz egiten den lankidetzaren azterketa eginez.

GAUTENAKO talde klinikoko kide gisa eta Gipuzkoako Autismo Elkarteak duen zerbitzu publikoa izateko bokazioa kontuan izanik, erakundearen baitan dauden familia eta profesional ugari orain arte bildutako esperientzia trukatzeari gure helburua. Familia eta profesionaleri esker da soilik posible errealitate honen inguruan dugun ezagutza izatea, indibidualki edo zatikatuta konparagarria ez bailitzateke izango.

Azkenik, helburu nagusizat autismoa duten pertsonen bizitza kalitatea hobetzea legoke. Horretarako, errealitate konplexu horren ezagutza eta ulermenean aurrera ekitea funtsezkoa da. Bide horretan, aktore nagusiei, autismoa duten pertsoneri alegia, lekua egin



behar zaie, hitz egiteko gai direnei hitza emanaz eta hitz egin ezin dezaketenei beren izenean eginez; guztia euren bizitzen egile izatea lortzeko.

GAUTENaren baitan dauden familia eta profesional ugarik orain arte bildutako esperientzia trukatzeari da gure helburua.



Reggio Emilia (Italia)

0-6 urte bitarteko haur eskolak



Maddalena TEDESCHI

REGGIO EMILIAKO PEDAGOGOA



Alfredo HOYUELOS

FILOSOFIA ETA HEZKUNTZA ZIENTZIETAN DOKTOREA



Ana ARAUJO

IRUÑEKO EGUNSENTI UDAL HAUR ESKOLAKO HEZITZAILEA

Ikastaro honek Reggio Emiliara gerturatzeko aukera emango du. Hango 0-6 urteko haur eskoletako esperientzia erreferente da mundu osoan. 2005ean esperientzia hori ezagutzeko jardunaldiak antolatu zituen Hik Hasik Donostian. 2006ko urrian bidaiia pedagogikoa egin zen Reggio Emiliara bertara. Ikastaro honek orain arte jasotako ezagutza eta informazioa sakontzeko balioko du. Helburu nagusia da Haur Hezkuntza hezitzaileek (0-3 eta 3-6 urte bitarte) eguneroko lanean hainbat hobekuntza egiteko hausnarketa guinea eskaintzea.

Horretarako hiru hizlari bilduko gara: Reggio Emiliatik Maddalena Tedeschi pedagogo eta Iruñetik Alfredo Hoyuelos Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea eta Malaguzzi

pedagogoari buruzko tesiaren egilea eta Ana Araujo Iruñeko Egunsenti Udal Haur Eskolako hezitzailea. Hirurak ere oso murgilduta eta lotuta gaude Reggio Emiliako lan egiteko moduarekin eta filosofiarekin, eta ikuspegi hirukoitzak aberastu egingo du parte-hartzaileei eskainiko zaiena. Hainbat gaitan sarkontzearekin batera, parte-hartzaileek euren kezkek eta eguneroko lanarekin lotutako zalantzak argitzeko aukera paregabea izanen dute.

Proiektuak


Hasteko, Reggio Emilian proiektuen bidez lan egiten dutela aipatu behar da. Proiektuak eta programazioak ez dira gauza bera. Programazioa aurrez zehazten da haurrak lortu behar di-

tuen helburuen eta horiek gauzatzeko egin behar dituen ekintzen bidez. Proiektua, aldiz, zehaztugabea da. Proiektuak edo haurren eraikuntza eta ikasleak prozesuak nola garatuko diren aurrez jakitea ezinezkoa da. Gauzak horrela, desberdintasun horiek azalduko dira ikastaroan eta proiektu baten azalpenarekin argituko dira.

Dokumentazioa

Bigarren eguneko ardatza dokumentazioa izanen da. Dokumentazioa oinarritzko elementua da. Funtsezkoa da bai haurren eta bai helduen ikasketa prozesua ezagutzeko.

Zer da dokumentazioa? Oharrak, irudiak, argazkiak, bideoak, haurrek egindako marrazkiak edo bestelako



oharrak... Hau da, haurrak egiten dituzten galderak, egiten ari diren lanak eta kezkarria den guztia ulertzen lagundu dezaketen elementu guztiak. Ez da helduak haurrari buruz egiten duen argazkia eta hori azpimarratzea garrantzitsua da. Helduak haurrarekin batera eraikitzen duen argazkia da, hau da, haurraren ikuspegia aintzat hartzen da. Nolabait esateko, eztabaida baten abiapuntu bihurtzen da dokumentazioa eta konbergentzia batera iristen da haurrak ere bere ikuspegia azaltzeko aukera duelako eta heldua berari buruz egiten ari den irudia ulertzeko. Beti haurren eta helduen artean partekatutako ekin-tza da. Dokumentazioak informazioa ematen du eta horrela helduak eta haurrak ardatz berean birkokatzeko balio du.

Beraz, partekatutako erlazio edo ikuspegia da eta gero lankideekin edo familiekin parteka daiteke. Hau da, haurren ikasketa prozesuari buruzko eztabaidarako oinarri izan daiteke.

Alde batetik dokumentazioaren oinarri teorikoa azalduko da, eta bestetik ikasleen etxekoekin partekatzeko egunerokotasunean oinarritutako dokumentazioaren adibideak emango dira.

Espresio tailerra

Hirugarren egunean espresio tailerrari buruzko hausnarketa egingo da. Reggio Emiliako haur eskola bakoitzak tailer bat du bere taileristarekin. Malaguzzik sortu zuen figura da. Hark uste zuen pertsona bakoitzak bere ikuspuntua duela haurrak ikusteko, eta hezitzaileek, euren formazioaren eta deformazioaren ondorioz, haurra era zehatz batera ikusten dute. Horrenbestez, gorpil zoro batera iristen gara. Hori eragotzi behar zela zioen Malaguzzik, nor-

maltasun gehiegi zegoela eskoletan eta hori apurtu egin behar zela.

Horretarako, aldamenen beste norbait behar dugula ohartu zen, ikusten dugunaren beste ikuspegi bat emango digun norbait. Hortik sortu zuen tailerista. Esate baterako, hezitzaileek txoko bat diseinatzeko dutenean funtzionaltasuna bilatzen diote (psikomotrizitatea lantzeko izango da, joko sinboliko batentzat, eraikuntza lantzeko...). Artistak, ordea, instalazio edo espazio gune moduan ikusten du.

Baina, gauza guztien gaineratik, pedagogia bera hausteko sortzen da, hezitzaileei lana oztopatzeko beren plan-

teamenduetan hain eskematikoak izan ez daitezten.

Hezitzaileak eta taileristak elkarlanean jarduten dute.

Lehen Hezkuntzan jarraipena

Bestalde, Haur Hezkuntzak Lehen Hezkuntzarekin beharko lukeen jarraipenaz ere hitz egingo da. Izan ere, Reggio Emiliako esperientzia 0-6 urtera mugatzen da. Lehen Hezkuntzako zenbait ikastetxerekin harremanak eduki dituzte eta horren berri emango dute.

Azkenik, ondorioetarako tarte ere egongo da.



Arratsaldeetako saioak



**Arratsaldeko 16:00etan
Pedagogia Fakultatean**

**Saio libreak.
Nahi duten guztientzat irekiak.**

Uztailak 3, asteartea

- ARGITALETXEEN EGUNA

**0.1 gelan: Argitaletxeek eskaintza berrien aurkezpenak egingo dituzte.
Elhuyar, Elkar, Erein...**

Uztailak 4, asteazkena

- PROPOSAMENEN EGUNA

0.7 gelan: Reggio Emiliako haur eskoletako MADDALENA TEDESCHI pedagogoak proiektu bat aurkeztuko du.

0.1 gelan: Zer da heziketa sortzailea? Zertarako behar dugu hezkuntzan?

Heziketa sortzailea: aurkezpen teorikoa eta ariketa praktikoak. MARGA IÑIGUEZ filosofoa, pedagogo eta sormenean aditua.



VI. Euskal Herriko baliabide pedagogikoen GIDA


hik hasi

EUSKAL HERRIKO
BALIABIDE
PEDAGOGIKOEN 6.



2005eko udazkena

Gida liburuaz gain, Hik Hasi web atarian
izango duzu



Irailean berritua!!

2007-08 eta 2008-09 ikasturteak

hik hasi

18.

monografikoa

**Irakasleen
profila**

**XXI. mendearen hasierako
Euskal Herrian**



Ale monografikoak

NAFARROAn**Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ)**

Ahokotasunaren lanketa ikasgelan	10 or.	EIBZ
Poetak kantari	10 or.	EIBZ
Internet, baliabideak eta aplikazio pedagogikoak. unitate didaktiko baten...	35 or.	Iturruma Ins.

Irakasleen Laguntzarako Zentroa (ILZ)

Aurki, Iruñeko eta Lekarozeko ILZetako ikastaroen berri gure webgunean izango duzue.

IPAR EUSKAL HERRIAN

SEASKA Ikastolen Federakuntzari formazio plana 2007/2008 ikasturterako. Sare Pribatuko irakasleentzako ikastaroak. Bai eta tokiko hainbat elkarteekin partaidetzan, mintzaldi eta formazio zikloak ere. Laster, guzti honen berri, gure webgunean!!!

EAEEn**GARATUplangintza**

0-6 urte bitarteko haurren eboluzio-ezaugarriak eta horien...	25 or.	Bilbo
0-6 urte bitarteko haurren eboluzio-ezaugarriak eta horien...	25 or.	Eibar
Jolasa eta haurraren garapena	25 or.	Gasteiz
Jolasa eta haurraren garapena	25 or.	Bilbo
Jolasa eta haurraren garapena	25 or.	Donostia
Jolasa eta Hezkuntza Premia Bereziak	25 or.	Eibar
Portfolioa: DBHn	20 or.	Bilbo
Portfolioa: DBHn	20 or.	Eibar
Demokraziaren funtsak: Gizarte-zientziak, Geografia eta Historia...	15 or.	Larrabetzu
GPS sistema baliabide didaktiko moduan	30 or.	Eibar (on-line)
Zientzia bizia: Biologia eta Geologia	20 or.	Bilbo
Musikarako Informatika I	20 or.	Eibar
Europako Erreferentzi Markoaren ekarpenak eta Portfolioa	20 or.	Bilbo
Europako Erreferentzi Markoaren ekarpenak eta Portfolioa	20 or.	Donostia
Musika eta multimedia	20 or.	Gasteiz
GIS libreen erabilera irakaskuntzan	30 or.	Eibar (on-line)
Etxeko sukaldean... kimika laborategia!!	25 or.	Bilbo
Kanta dezagun!!	15 or.	Eibar

**IRALE plangintza**

Nola irakatsi euskara, bigarren hizkuntza dela	20 or
Curriculumaren Euskal dimentsioa, Euskal Curriculum, zertaz ari gara?	20 or
Irratia eskolan interneten bitartez	20 or
Gure historia, euskal literatur lanen argitan	20 or
Blog-ak: oinarriak, esperientziak eta praktika.	15 or.
Ordenagailu eta interneten erabilera musika gelan	20 or
Hizkuntza lanabesak amaraunean	12 or.
Soziolinguistika nola irakatsi?	20 or
Kontatzetik mintzatzera: ipuina, hitz egiteko baliabidea	20 or
Kontuz, otsoa datorrela! Edo erdarakaden hatsa garondoan sentitzen dugunean	15 or.
Euskal literatura sarean	15 or.
Azken urteotako narratiba laburra: motzean handi	15 or.
«Definiciónetik definiziora: ikasmaterialen itzulpena»	10 or.
Jende aurrean hizkera jasoan mintzatzeko gaitasuna nola landu.	10 or.
Kanta dezagun!!	10 or.
Komunikazio pertsonala eta profesionala eraginkorra	24 or.
Ipuin tailerra.	15 or.

Eta... **EUSKAL CURRICULUMA**ren inguruan interesa duten ikastetxeentzako formazioa.



nolako ikasketak, halako etorkizuna

2007-2008 ikasturterako eskaintza

Formazio arautua

Irakasle Ikasketak: *(lana utzi gabe 2. diplomatura egiteko aukera)*

- Haur Hezkuntza espezialitatea
- Hezkuntza Berezia espezialitatea
- Atzerriko Hizkuntza espezialitatea
- Heziketa Fisikoa espezialitatea
- Entzumena eta Mintzaira espezialitatea
- Lehen Hezkuntza espezialitatea

Psikopedagogia lizentzia: *(bigarren zikloko lizentzia)*

On-line eta erdi presentziala, Bilbon nahiz Eskoriatzan

- Hizkuntzen Psikopedagogia
- Esku-hartze Psikopedagogikoa

Enpresarako Giza Zientziak lizentzia

Ikus-entzunezko komunikazioa lizentzia

Graduondoak

- Hizkuntzen Kudeaketa *(Aditu titulua)*
- Prestakuntza Pedagogikoa *(Aditu titulua)*
- XXI.mendeko hezkuntza erronkak: Kulturartekotasuna eta eleaniztasuna *(Master ofiziala edo aditu titulua)*
- Ikerketa hezkuntza eremuan *(Master ofiziala)*
- Euskal kulturgintzaren transmisioa *(Aditu titulua)* **BERRIA**

Informazio gehiagorako:



HUHEZI (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea)
Dorleta auzoa z/g
20540 Eskoriatza (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 714157 • Faxa: 943 714032
e-maila: sarrera@huhezi.edu